

K...eta!
Kitto!

2018-V-25

1059 zkia.

EUSKAL JAIAN dantza elikagai



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiziaren kirurgia
Begi lehorraren tratamendua



gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ

Instalakuntzak eta konponketak antenak

Bidebarrieta, 37
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

943 530 356
688 674 242
669 934 964

electricidad iparelek s.l.

INSTALAZIOAK ETA
MANTENIMENDUA

iparelek@gmail.com iparelek@iparelek.com



TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

610 532 922

IGELTSEROAK



Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitin Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ARKITEKTOAK

olatz etxeberria martinez ARKITEKTOA
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberria

arkitektura, hirigintza eta peritazioak
eraikin eta obretako kudeaketa teknikoak

Mekola, 7 - behea
Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-ei.com



ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E.

INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS



ERAIKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA

info@ajtoficina.com tlf. 943 80 18 30

AJT zihurtasuna S.L.P.
Barrena, 6 - behea ezk.

KRISTALAK



TAILERRA: ERREKATXU, 3an

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com

eta faxa: 943 203 903

ERAKUSKETA
Arikitzaneko Zubian

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA

EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK



PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA

ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-

605 713 168 943 744 019

GARBIKETAK



Limpieza
Multiservicio
Eibar

Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082

Mobila 688 609 171

www.multiservicioeibar.com Arragueta, 18-2.D



ELEKTRIZITATEA

egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac
ego.luz@hotmail.com

677 51 24 62
630 95 73 45
943 20 06 97



TREJO

GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorraluze

Garbiketa eta
mantenimendua

PINTURAK



Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21

Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

www.kolorlan.com 667 54 89 16



Sostoa, 16 ac behea

Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900

Mobila. 656 784 396

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Fernando Retolaza

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.150 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* "k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eskutitzak

– Eskola Mapa Forora gonbidapena –

Eibarko Eskola Maparekin arduratuta, elkartruckerako Foroa antolatu du EH Bilduk. Foro horretan EH Bilduk, Rebeka Ubera legebiltzarkidearen eskutik, Eusko Legebiltzarrean egindako proposamenak aurkeztuko ditugu.

Bestalde, Gasteizko Ramon Bajo eskolako esperientzia gertutik ezagutzeko aukera izango dugu Leire Diaz de Gereñuren eskutik, Ramon Bajo eskolako gurasoa eta EHUko Hizkuntzalaritza eta Euskal ikasketak saileko irakaslea bera.

Amaitzeko, Eibarren Eskola Maparen inguruan EH Bilduk dituen proposamenak eta egitasmoak zuekin konpartitzea gustatuko litzazuke. Proposamenak irekiak dira eta ekarpenak ongi etorriak izan-

go dira, noski. Gai horren inguruko Foro parte-hartzailea eratzea nahi dugu, azken batean iritzi guztiak errespetagarriak izango diren dinamika positibo eta eraikitzaile bat sortzeko. Eta, noski, horretarako zuen guztion laguntza ezinbestekoa da.

Eskoletako zuzendaritzek, irakasleok, guraso elkarteetako zuzendaritzek, Eibarko gurasoek eta gai honetan interesa duen edonork ateak guztiz zabaliak ditu bertan parte hartzeko.

Eskola Mapa Foroa maiatzaren 30ean (eguzte-
na) izango da, 19'00etatik aurrera Kultun. Bertan ikusiko zaitugulakoan.

Eibarko EH Bildu Udal Taldea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MANIAU.- Konpondu, maniatu, prestatu. *"la baibenen bat izaten ebanian zelan maniatzen zan jausi barik egoteko".*

Jatekoa prestatu. *"Etxekoandria bere alabarik gaztienakin afarixa maniatzen ziharduan leku ber-bertaraino".*

astean esanak

"Mallorcan zutik jausteko zortea izan dut. Hara joan nintzenezan lokatzetik irtengo ginela esan nien eta jendeak barre egin zuen. Orain arrazoa ematea besterik ez zaie geratzen. Hilabete bat kostatu zitzaigun abiatzea, baina azken hamar partidutan multzoko talderik onena izan gara. Denboraldi berriari begira, badirudi aukera izango dugula taldea gure neurriera egiteko... E la ortzen dugun talde irabazlea egitea, Eibarren izan nuen moduan. Mallorcan, gainera, ez nago hain urruti: Loiotik ordubetera, Tuteratik baino gertuago. Zergatik aukeratu nuen Atletico Baleares? Aukeren artean, fidagarriena zelako"

(MANIX MANDIOLA, ENTRENATZAILEA)

"Bizimodua musikagintzatik ateratzeko garrantzitsuena musikaria ez izatea dela esan zuen, oker ez banago, Francis Diez Doctor Deseo musika taldeko kantariak. Eta zenbait kultura alorretan pare-parean dator, beti. Hainbat sortzaile ere ari dira joko horretan; azkena, argi eta garbi, Fernando Aranburu. Bernardo Atxagari ere entzuna diot idazlearen funtzio nagusia, izatez, estereotipoak haustea dela. Nago idaztea bera ez zela Aranbururen lehenasunetako bat izan Patria eleberria zirriborrazten hasi zenezan. Azkar oharu nintzen horretaz, liburua argitaratu eta berehala erosi bainuen. Lehen erdia arin irakurri nuen, ondorengo kostata: azalak mamiak baino pisu handiagoa duelako"

(JOKIN LABAIEN, KAZETARIA)

"Hiztun komunitatea etengabe berreraiki behar da; ez dago ziurtatuta, herria ez dagoen bezala. Horregatik behar da politika bat: ez 600.000 euskal hiztunentzako kultura sustatzeko, herri osoa euskalduntzeko baizik. Eskolan euskaldundutakoen motibazioa ez da beraia, D ereduaren eskolatu dituzten gurasoena baizik; eskolako erabileraren, ezagutzaren, nortasunaren eta lurraldearen bektoreak elkarrengandik aldentzen ari dira. Hori hazkunde krisi baten sintoma izan daiteke, hala uste dut behintzat. Zaindu beharreko kontua da: bestela, euskaldun kopurua asko handitu arren, hiztun komunitatea ez delako handituko. Eta baliabideak ezin dira egon aurrekontuen menpe"

(JOSU AMEZAGA, EHUko IRAKASLEA)



PEDRO ALBERDI

Izena

Urte asko kostatu zait neure izenarekin ados jartzea. Zortzi-bederatzi urte nituela, *Verdu* gaitzizena jarri zidaten, eta batek baino gehiagok oraindik horrela ezagutuko nau Eibarren, batez ere futboleko jendearen artean. Gaitzizen itsusia dela ezin uka, "verdugo"tik datorrela kontuan izanda. Zehazki, Mitxel Sarasuak jarri zidan, etxetik Sagrado Crazonera bidean kointziditu genuen sasoiari. Nik garai hartan *montgomery* bat nuen, eta askotan txanoa jantzita eramaten nuen. Horrek atentzioa ematen bide zion Mitxeli, eta adarjotzailea zenez, "verdugo" esaten hasi zitzaidan. Eta gaitzizena nik nahi baino gehiago eta azkarrago zabaldu zen. Hamazazpi urterekin El Correo egunkariak elkarrizketa egin zidan, S D Eibarren debutatu berri nuela eta. *¿Cómo prefieres que te llamen, por el apellido o por el apodo?* galdetu zidan kazetariak. Oraindik senti nitzake une hartako deserosotasuna, etsipena eta amore ematea, gezur handi batez erantzutean: *Me es indiferente*.

Garai bertsuan, edo geroxeago, neure izenaren bertsio euskaratuak ezagutu nituen. Zumaian, non udako oporrak igaro ohi genituen etxekook, *Pello* esaten zidaten bertako lagunek. Bilbon, berriz, hemeretzi urterekin euskara erakusten hasi nintzenez, *Peru* bataiatu ninduten gaueskolan. Eibarren, azkenik, hirugarren aldaera bat asmatu zidaten: *Kepa*. Eta baten batek, urrunago joz, izen elkartua aukeratu zidan: *Kepa Miren*. Eta ez nintzen zurrunbilo hartatik atera, harik eta, hogeita hemezortzi urterekin, neure lehenengo liburua argitaratu eta neure izena haren azalean ikusi nuen arte.

172 eguneko greba eta gero, adostasunera ailegau dira Alfakuak

Administraziño konkursalarekin adostasuna lortu eben Alfako bihargiñak aurreko bari-xakuan, 172. greba egunian. Ixa sei hillebeteko burruka eta gero, Alfako bihargiñak Administraziño konkursalarekin adostasunera ailegau ziran aurreko astian. Azaldu dabenez, kaleratuko dituen bihargiñeri ordaindu biharreko indemnizaziñuak hobetzia lortu dabe eta, horrekin batera, grebalarixeri kalte ordainak pagauko detsez, "enpresak greba eskubidia urratziagaittik". Lanpostuerei dagokionez, barriz, inbersoriak 70 lanposturi eusteko eskintza egin detse.



Oñatira txangua egin dabe Pagatxakuak

Oin dala egun batzuk Oñatira exkursiñua egin eben Pagatxa emakumien alkar-tekuak. Egunpasa ederra egin eben andrak eta interes handiko tokiak ikusteko aprobetxau eben urteeria: Sancti Spiritus unibersidadia, San Miguel parroki-a, Foruen Plaza, San Miguel errota eta Arrikruzteko kobazuluak ikusi zittuen, bestiak beste.

Giza-katearen eguneroko programia osatu dabe

Gure Esku Dagoren ekime-nez ekaiñaren 10ian egingo dan giza-katearen harira, Eibarko programia osatu dabe: 11:00etan baxotxa bere kilometrorra gerturatu bihariko da (71. kilometrua Barrenatik Agiñaspira bittartekua da eta Urkizun Elektro-txufila txarangakuak egongo dira; 72. kilometrua Ego Gaiñeraiño juango da eta Eonian elektrotxarangiak giro-tuko dau eta Amañaraiño juan-

go dan 73. kilometruan trikitalirixak egongo dira). Giza-katea 12:00xetatik 12:30xetara bittartian osatuko da, 13:00ian Untzagan alkartuko da jende guztia, Parrapas taldiarekin egingo dan erromerixan, 14:30xetan bazkarixa egingo da Bizimiñaren eskutik (txartelak salgai dagoz ohiko tokixetan) eta, amaitzeko, bazkalostian musikia egongo da La Basu eta Koban taldiarekin.





Markesina ipiñi dabe Untzagako autobus geltokixan

Aste honetan ipiñi dabe Untzagako autobus geltokixa babesteko markesina. Autobusa hor hartzen dabenak aspaldittik zebizen markesina ipintzeko eskatzen, baiña horretarako momentu egokixa ointxe zala pentsau dabe Udalian, bestiak beste autobusen maiztasuna haunditzen jua dalako. Markesinak ixa 30.000 euroko kostua euki dau.



DYAk ikastarua eta hitzaldixa eskinduko dittu hillaren amaieran

Gipuzkuako DYAk oiñarrizko lehen sorospeneko ikastarua eskinduko dau maiztaren 28tik ekaiñaren 1era arte, 19:00etatik 21:00etara. Heziketia teoriko-praktikua izatiaz gaiñera, parte hartzeko ez da biharrezkua aurrez ezagupenik izatia. Hitzaldixa, bestalde, hillaren 30ian emongo da eta "Uretan ittotzia" dauka izenburua: uretan ittotziaren aurkako prebentziño eta eskuhartze hitzaldi hori doanekua izango da. Erre- serbak egittek, DYA Gipuzkuako 943-464622 telefono zenbakira deittu leike.

autuan

JAIXETARAKO PEGATINA

San Juan jaixetan alkohol larregi ez edatera animatzeko pegatina lehiaketia Amaia Ajuriaguerra Ortiz de Zaratek irabazi dau, "Itxo barik" izeneko lanarekin. Pegatina irabazliak jaixak umorez

baiña osasuntsu bizitzeko asmua erakusten dabela diñue lehiaketako antolatzailliak.



TXOSNAK IPINTZEKO ESKAERIA

San Juan jaixetan txosnak jartzeko eskaeriak aurkezteko epia zabalik dago. Interesa dakenak Pegoran aurkeztu biharko dittue eskeriak ekaiñaren 4rako (19:00ak baiño lehen).

KUADRILLEDAKO DIRULAGUNTZAK

Kuadrillak San Juan jaixetarako materixala erosteko Udalak emoten dittuan laguntzak eskatzeko epia astelehenian zabalduko dabe eta ekaiñaren 9xan amaittuko da, 12:00xetan.

Ingurumenaren Mundu Eguna **EIBARREN**

Ekainaren 5aren inguruan, Eibarko Udalaren Ingurumen Saitetik antolatutako ekintzak:

HITZALDIA

Ekainak 4
 19:00
 Portalea

"Natura, ongizatearen oinarria", **IBONE AMETZAGAREN** ESKUTIK euskaraz / 45 minutu



DOKUMENTALA

Ekainak 12
 19:00 Coliseoa

"Racing Extinction: Cuenta Regresiva", doan / 90 minutu



ARGITU TAILERRAK

ENERGIA (ETA DIRUA) EROSOTASUNIK GALDU GABE AURREZTERA ZUZENDUTAKO DOAKO SAIO PRAKTIKOAK

- Energia eraginkortasunari buruzko **TAILERRA** Ekainak 7
 10:30 Untzagako Jubilatutako Etxea (3. adinekoentzat)
 18:00 Portalea (publiko guztientzat)
- Elektrizitate kontsumoari eta datuen interpretazioari buruzko **TAILERRA**
 Ekainak 12 / 15:00 Portalea (merkatariarentzat)

Izen-ematea: edurne@izadi21.eus
 628 532 303 (09:30-17:00)



EIBARKO UDALA

Eskualde maillako manifestaziñua deittu dabe jubilauak bixarko

Astelehen eguardixan Untzagan egindako agerraldixan, pentsiodunak euren aldarrikapenak berrestiarekin batera mobilizaziñuekin jarraitzia erabagi dabela emon eben aditzera, "gure eskubidiak bizidun erantzuna jaso arte. Hiri eta herrixetan astelehenero egittun dittugun alkarretartziekin segiduko dogu, eta eskuz esku, gizarteko erakunde ezberdiñekin batera, maiatzaren 26xan Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan, eta zenbait herrittan, atzera be mobilizaziño zabala egittera goiaz". Horren harira, bixar Eibarren eskualde maillako manifestaziñua egingo dala iragarri dabe, 12:00etan Untzagatik abiatuta.

Gipuzkoako Jubilauen Etxiak osatzen daben AGIJUPENS alkartaren izenian irakorri eben idatzixaren arabera, "maiatzaren 26ko manifestaziñora ez juateko asmua azaldu bagenduan be, hobetu pentsatu eta



Astelehenian emon eben aditzera mobilizaziñuekin segitzia erabagi dabela. **Silbia Hernandez**

Probintzia Maillako Batzordiak zein gure Zuzendaritza Batzordiak eritzixa aldatu eta manifestaziñuarekin bat egittia erabagi dogu, baita Gipuzkoako herrixetan astero egittun dittugun alkarretartziekin aurrera egittia be. Uste dogu mobilizaziñueri esker gure eskubidien inguruan kontzientzia hartzen juatia lortu dogula, pausorik

pauso pentsiodunen ahaldunderantz juateko".

Biztu Eibarko Jubilatuen Egoitzak, Untzaga Eibarko Pentsionisten Plataformak eta Duintasuna Elkarteak deittuta bixar egingo dan manifestaziñorako eskaeriak honek dira: txirotasunaren aurka eta Europako Gizarte Kartaren ildotik, 1.080 euroko gitxieneko pen-

siñua; bizimodua garestitzen doian neurrixan, pensiuñen baliuxa haunditxia automatikoki; pensiuñen pribatizaziño eta murrizketaren aurka, enpleguaren prekarizaziñuaren aurka, pensio sistemaren eta lan baldintzen erreformak indargabetzia; eta Konstituziñuan eta aurrekontuetan pensiuñen blindajea.

30BIEMH
YOU MAKE IT BIG

BE IN

Lapurtariak / Colaboradores / Colaboradores

Zuzendak, Arazoaren

AIMHE



Makiña-erremintaren Bienala egingo dabe datorren astian

Astelehenian, hillaren 28xan, hasi eta barixakura arte iraungo daben Makiña-erremintaren Biurtekuak oin arteko marka guztiak hautsiko dittu. Bienalaren 30. ediziñua izango da Barakaldoko BEC erakustazokan egingo dan datorren astekua eta, eduki eta barrikuntza teknologiko aldetik, punta-puntakua izango da. Guztira, 21 herrialdetako 1.700 erakusketari izango dira BEC-eko sei pabilioietan, gehixenak Portugaletik, Alemaniatic, Italiatic eta Frantziatic etorritakuak. Oin dala bi urteko aurreko ediziñuan 54 herritako 40.000 lagunetik gora izan ziran parte hartzen Bilbao Exhibition Centrek eta AFM makiña-erreminten fabrikatzaillien alkartiak alkarlanian antolatutako ekitaldixan. 3.000 produktutik gora, 1.200 makiña, beste 300 barrittasun... izango da ekaiñaren 1ian amaittuko dan Bienalixan, tartian Eibartik juandako hainbat enpresetako ordezkariexekin.

Zorionak, Ibon, eta urte askotarako!

Ibon Muñoa Arizmendiarrietak 60 urte bete zittuan aurreko barixakuan eta lagunak Untzagan alkatu ziran, urtebetetziagaittik topa egin eta argazkixa egittuko: "Ibonek 18 urte daroiaz preso, etxetik oso urrun, ixa bakaturik. Deserriratzia samurtzeko asmuarekin, urtero bezala, lagunak Untzagan topa egin genduan, ardau eta pintxuekin. Mutil jatorra da eta!".



Maiatzaren 30erako lanuztiak deittu ditu LAB sindikatuak

LAB sindikatuko ordezkariak eskualde maillako batzarra egin eben martitzen goizian Arrate Kultur Elkartearen, maiatzaren 30erako Hego Euskal Herrixan deittu dituen lanuztien harira. Datorren asterako deittu diran lanuztiak "hitzarmenen estatizaziñuaren aurka eta Lan Harremanen eta Babes Soziale-rako Euskal Esparruaren defentsan" izango dirala azaldu dabe sindikatutik. Eibarren, 12:30xetan manifestaziñua egingo da, Untzagatik abiatuta. Sindikatutik diñuenez, "hain zuzen be, mobilizaziño orokorra egitteko eguna izango da, eta, bihargiñen partehartzia ahalbidetzeko, bi orduko lanuztiak egingo ditugu. Kaler urtetzeko arrazoiak soberan dagoz, eta hori izan da azken egunotan, sektorez sektore, eskualdez eskualde, egitten ari garan batzarretan nabarmendu doguna".



Eskola Maparen inguruko saio irekixa egingo da eguaztenian

Eskola Mapari buruzko foro irekixa deittu dau Eibarko EH Bildu Udal Taldiak eguaztenerako, 19:00etan Kultur. Rebea Upera EH Bilduko legebiltzarkidiak Legebiltzarrian egindako proposamenak azalduko ditu saian. Ondoren, Gasteizeko Ramon Bajo eskolako esperientziaren barri emongo dau bertako gurasua eta EHUKo irakaslia dan Leire Diaz de Gereñuk. Eta, amaitzeko, Gorka Errasti EH Bilduko zifegotzixak Eibarko Eskola Maparako proposamenak aurkeztuko ditu. Gaixaren inguruan interesa dakan edozeiñek izango dau parte hartzeko aukeria eta jende guztia dago gonbidatuta.



kaletan baiño gehixagotan grafitiak garbittu eta gero, Udalak pintaketak garbitzeko 2. kanpaiñia abiatu dau. Eskaeriak ekaiñaren 22ra arte egin leikez. Urtian zihar Udaltzaiñak 12 lagun identifika dau eta 3 grafiterori espedientia zabaldu detse; multia 120 euro eta 400 euro bittartekua da.

"Andreen ibilbideak" ekimena antolatu dau Andretxeak

Pasiatzeko eta jende berrixa ezagutzeko gogua daken andrendako "Andreen ibilbideak" izeneko ekimena antolatu dau Andretxeak datozen hillebetietarako: hillebete bakotzeko azken egunetan, 09:45ean udaletzeko arku-pietan alkartu eta handik abiatuta, ordu bi inguruko iraupena izango daben ibilbidia egittera juango dira, gidari batek lagunduta. Jarduera doakoa da eta parte hartzeko ez da biharrezkua aurretik izena emotia. Lehelengo ibillaldixa datorren astian, maiatzaren 31n egingo dabe eta hurrengiak, barriz, ekaiñak 28xan eta uztaillak 26xan izango dira. Informaziño gehixagorako Andretxeara deittu (943 70 08 28) edo idatzi (andretxea@eibar.eus) leike.



Izadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

PUBLI RESA
objeto publicitario

Armagin, 3-5 beheak

- merchandising
- serigrafia
- lanerako erropa

publiresa@publiresa.com 943 701 497 / 615 799 419



Esperientzia Eskolako ikasleek herria zaintzeko ahalegina egingo dute

Gaur goizean egin dute Debabarreneko Esperientzia Eskolaren 2017-2018 Ikasturtearen klausura ekitaldia, Armeria Eskolan. Aurtengoa 14. edizioa izan da eta 15 ikasle, sei gizon eta bederatzi emakume ibili dira klasera joaten. Ikasleak Eibarkoak ez ezik Mutriku, Deba, Soralue eta Ermukoak ere badira eta, ikasturtea amaituta, gaurko ekitaldian diploma bana jaso dute.

Gaurkoan Esperientzia Eskolako ikasle-ohiek osatzen duten Ikasten elkarteko Felipe Zubiatek ekitaldian sarrera egin eta, jarraian, ekitaldira gonbidatuta zeudenei hitza emanda jarraitzea zegoen aurreikusita. Ekitaldian parte hartzeko gonbidatuta zeudenak, berriz, Miguel De los Toyos alkatea, Itziar Igartua (Kutxa Fundaziotik), Rafael Hernández (GFAko Dependentsiari Arreta Saileko Teknikaria), Ana Maria Alberdi Ugalde (Ikasteko Presidentea) eta Rosa Agirreazaldegí, Enriqueta Zaballa eta Felix Peña, XIV. promozioiko ikasleak dira. Izan ere, aurtengo ikasturtea Eibarko Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Kutxa Fundazioaren dirulaguntzarekin antolatuta da.

50 urtetik gorako pertsonentzat antolatzen den Esperientzia Eskolan parte har-

tzeko ez da beharrezkoa aurretik ikasketa edo titulaziorik izatea, "ikasteko gogoia izatea, besterik ez da behar". Eskolako arduradunen berbetan, "helburua, maila fisiko, psikiko nahiz sozialean garapen pertsonal, eraginkor, osasungarri eta arrakastatsu bat sustatzea da. Eskaintzen den formazioa gaur egungo gizartea hobeto ulertu eta aztertzeko ezagupenak eguneratzera bideratuta dago. Horrekin batera, Debabarreneko Esperientzia Eskolan formakuntza eta

partehartzea lantzen ditugu ikasturtean zehar, eta horren emaitza izaten da ekimen edo proiektu sozial bat martxan jartzea". Klaseak urritik maiatzera bitartean izaten dira, astean hiru egunetan, goizez eta laster, uztailan zabalduko dute hurrengo ikasturterako matrikulazioa.

#herriazaindu

Ikasturte amaierarako talde-lan gisara landu duten aurtengo proiektuari "#herriazaindu" izena ipini diote eta, ikasleek azaldu dutenez, "aurten ere herria zatatzen duten jokaerak izan dira gure proiektuaren funtsa. Eta jokaera hauek salatzen asmoz #herriazaindu izeneko kanpaina jarriko dugu martxan datorren astean. Kontenedoreetan sartu gabeko zabor poltsak, txiza kaleetan, pintada eta firmak eta jaso bariko txakurren kakak salatzen asmoarekin, jokaera hauek aurkitzen ditugun lekuetan pegatina batzuk jarriko ditugu. Pegatina bakoitzak mezu bat izango du".

Horri lotuta, ekainaren 1ean Untzaga plazan mahai bat jartzeko asmoa dutela aurreratu dute: "Bertan 'Fundamentua opari' edukiko dugu. Jendeari sobre bat oparituko diogu eta sobrea hartzen duen bakoitzak barruan hiru mezu aurkituko ditu. Mezu hauekin hausnarketa eragin nahi dugu, gure herriak garbi eta atsegin mantentzeko bakoitzak egin dezakeena azpimarratuz".



Aurreko edizioan ere Eibarko garbitasunaren inguruko proiektua landu zuten.



Mohamed semea izan zen Bineta Eibarrera etortzeko arrazoi nagusia. Ekhi Belar

Sanferminek Eibarrera ekarri zuten senegaldarra

Afrikaren Eguna da gaur, maiatzaren 25a. Afrikako estatuak batu eta elkartu, afrikar herrialdeei bizi-baldintza hobek eskaini, euren subiranotasun eta lurraldetasunaren alde egin, eta kolonialismoa ezabatu eta nazioarteko lankidetzeta bultzatzea helburu zuen Afrikako Batasunerako Erakundearen sortzea gogoratzen da egun honetan. Ospatzeko eguna da, beraz, Bineta Mbaye Cisserentzat, Senegalen jaio baitzen.

Dakar, hiri berezia

Afrikako hiririk mendebaldekoena da Dakar, Senegalgo hiriburua. Amerika eta Europa arteko itsas-trafikorako kokapen aparta dauka eta historia laburra badu ere, garrantzi handiko hiria izan da. 1.100.000 biztanle inguru bizi dira bertan eta han jaio zen Bineta. "Hiri berezia da", bere esanetan. Familia osoarekin bizi zen han. "Aitxitxa-amamak, osaba-izebak, anai-arrebak... denak elkarrekin bizi ginen", hamalau pertsona etxe berean. "Ez ginen aspertzen".

Iruñera bere borondatearen kontra

Bineta eskolara joaten zen eta bere bizitza Senegalen zeukan, baina aitzak beste plan batzuk zituen. Senegal utzi eta Iruñera lanera etorri zen aspaldi bere aita, eta urte batzuk geroago Bineta ekarri zuen. Senegalen hemengo Batxilergoaren an-

tzekoa ikasten ari zela ikasketak laga behar izan zituen Binetak Iruñera etortzeko. Berak ez zuen nahi. "Nire esku balego, ez nintzateke etorriko". 19 urterekin bere bizitza atzean utzi eta Euskal Herrira iritsi zen. "Horrelakoa da bizitza eta edozein egoerataraz egokitu behar zara".

Bizimodu berria bereganatuz

Iruñea eta Dakar ez dira gauza bera. "Gainera, familiarekin berba egiten nuen bakoitzean negar egiten nuen". Gogorak egin zitzaizkion lehen momentuak. "Ez nekien noiz bueltatuko nintzen, baina nire kasuan, zorionez, hainbat alditan bueltatu ahal izan naiz". Bere herrialdeari oso lotuta dago Bineta, baina berak esan bezala, egoera berrira egokitu da eta Euskal Herriko ohiturak bereganatu ditu. "Senegaleko eta hemengo bizimoduak zeharo ez-

berdinak dira. Ez ditut hango ohiturak ahaztuko, baina hemen gauza asko ikasi eta ikuspuntu berriak aurkitu ditut".

Seme eibartarrak

Iruñean ondo bizi zen Bineta, baina gaur egun bere semeen aita dena ezagutu zuen Sanferminetan eta Eibarrera bidean jarri zen. "Bera ere senegaldarra da eta Eibarren bizi zen". Autobus ordu asko pasa zituen maitasun istorioa aurrera zihoan neurrian, baina haurdun geratu eta Eibarrera bizitzera etortzea erabaki zuen Binetak. 2014an Mohamed txikia jaio zen eta orain dela hamar hilabete etorri zen mundura Rashid. "Hemen oso ondo nago, lagunak egin ditut eta ondo moldatzen naiz eibartarrekin".

Euskeraz eguaztenero

Frantsesa da Senegalgo hizkuntza ofiziala, baina wolofera da herrialdeko hizkuntza nagusia. Binetak woloferez egiten du, eta Euskal Herrian bizi denetik gaztelerez eta euskeraz egiten ikasi du. Gaztelerez bikain egiten badu ere, euskerarekin ez da ausartzen. "Ea noiz egiten dudan ondo euskaraz, oso zaila da!". Ongietorri Berbetan egitasmoan parte hartzen du eta euskara ikasi eta praktikatzeko du eguaztenero. "Poliki-poliki noa, ikasteko gogoia edukitzea da gakoa eta nik badaukat". Birtartean, Mohamed semearekin eskolan ikasitakoarekin praktikatzeko du.

"Ben loho
dou tatiou"

(WOLOFERAZ)

"Esku batekin ezin
da txalo egin"

Eva Perosanz, Ander Curiel eta Aitor Arrieta (La Salleko Bidezko Merkataritza)

“Hemengo familiek egiten duten lanari balioa ematen dio **ziurtagiriak**”

La Salle ikastetxeak ‘Bidezko Merkataritzaren aldeko ikastetxea’ ziurtagiria jaso zuen joan den barixakuan. Eva Perosanz, Ander Curiel eta Aitor Arrieta elkarrizketatuek erantzukizun zuzena izan dute lorpen honetan. Urteak daramatzate proiektu solidarioetan lanean eta Proyde-Proega La Salleko GKE-arekin elkarlanean dabiltza oraindik. Hilaren amaieratik aurrera Bidezko Merkataritzako produktuak salduko dituen www.bidezkomerkataritza.proyde-proega.org webgunea kudeatuko dute.

- ‘Bidezko Merkataritzaren aldeko ikastetxea’ ziurtagiria jaso berri du La Sallek. Nolako ekintzak egin dituzue gai horren inguruan?

Jende Xumea taldeko kideak ginen izan eta gure proiektua zen udan Hego Amerikara joatea hainbat egitasmotan laguntzeko. Hainbat ekintza egin genituen bidaia finantziatzeko eta Bidezko Merkataritzako postua jartzen genuen ekintza bat egin behar genuen bakoitzean. Horrela, bertara joaten zirenak Bidezko Merkataritzaren inguruan kontzientziatzen saiatzen ginen. Finantzazioarekin lotuta, barixakuetan La Salle Isasin egiten genituen meriendetan postua jartzen genuen, eta baita urtean behin Untzagan Proega egunean egiten den bigarren eskuko merkatuan ere. Gai-

nera, Bidezko Merkataritzaren inguruko ikastaroa jaso genuen aurretik.

- Hainbat urtetako bidea izan da zuentzat, ezta?

Gure kontzientziarioa ez dator iaiztik, DBH-ko 3. mailatik gabiltza Proyde-Proegarekin elkarlanean. 7-8 urte daramatzagu honen inguruan lan egiten.

- Gaur egun Proyde-Proegarekin elkarlanean jarraitzen duzue?

Iaz gure taldeko batzuk joan ginen udan Hegoamerikara eta taldeko beste batzuei tokatzen zitzaie, baina ez dira animatu momentuz. DBH-ko 3. edo 4. mailan Tandacu taldean hasi ginen eta batxilergo-ko 2. maila amaitzean Jende Xumea taldea sortu genuen. Lau urtez egon gara talde honetan. Urtero ekintza nagusi bat lan-

du dugu, nazioartean zein etxean. Aurten ez genekien ondo zer egin eta Bidezko Merkataritzaren proiektu honetan sartzea proposatu zigun Proyde-Proegak eta horretan ibili gara.

- Atzetik datozenek, zuek baino gazteagoek, zuen bidea jarraitzen dute?

Momentuz ez. Gure bidea jarraitu dezaten ahalegin gara, baina gure taldea izan da La Sallen ikasketak amaitu eta oraindik proiektu hauetan jarraitu duen bakarra. 10-11 pertsonako taldea osatzen dugu. Batxilergo-ko 2. mailakoekin berba egitera joango gara aurten ere, gainera ezagutzen gaituzte, baina ez da egon gu bezala talde oso bat Batxilergoa amaitzean jarraitu nahi izan duena.

- La Sallek jaso berri duen sari edo izendapena jasotzeko bide horretan lagunduko duela uste duzue?

Agian ez du balio gazteak proiektuan parte hartzea animatzeko, baina egiten ari garen lanak esker ona jaso du eta gustora jasotzen dugu. Gainera, hemengo familiek egiten duten lanari balioa ematen dio. Guk produktuak saldu eta sentsibilizazio lana egiten dugu, baina eurak dira produktuak erostera eta informazioa jasotzera datozenak.

- Bidezko Merkataritzako produktuak saltzeko webgunea jarriko duzue martxan. Zuek kudeatuko duzue?

Bai. Webgunea kudeatzeko ikastaroa jaso dugu, eta bertan salduko diren produktuak kudeatzea eta azalduko diren berriak eguneratzea izango da gure lana. Jasotako eskaeren arabera saldutako produktuak batu eta antolatuko ditugu erosteei emateko.

- Nolako produktuak salduko dira?

Denetarik dago. Kafea (Boliviakoa, Perukoa...) eta txokolatea dira gehien saltzen direnak, baina mermelada, arroza, kinoa, gluten bariko jakiak eta beste hainbat produktu salduko dira.



Ander, Eva eta Aitor, ziurtagiria eskuan dutela.

Udarako sorkuntza tailerrak eskainiko ditu Gazte Robotikak

Iazko udan eta Aste Santuan izandako harre-
ra bikaina ikusita, Gazte Robotika egitasmoak
aurtengo udan ere robotika eta bideojokoan sor-
kuntza tailerrak eskainiko ditu Debabarrenean
(Deban, Eibarren, Ermuan, Mallabian, Mutrikun
eta Soraluzen). Haur eta gazteen artean zientzia,
teknologia, ingeniari-tza, artea eta matematika-
rekiko interesa piztea bilatzen duen egitasmoa
Debabarreneko Udalek eta Debegesak bultzatu
dute elkarlanean eta, iaz abiatu zutenetik, 200
gaztek baino gehiagok hartu dute parte.

Edizio honetan zortzi tailer eskainiko dira,
2001 eta 2009 urteen artean jaiotako haur eta
gazteei zuzenduta. Antolatzaileen berbetan,
"talde lana sustatuz, gaztetxoek teknologiare-
kin ikasi eta ondo pasatzeko aukera izango du-
te euren robot eta biodejokoak sortuz eta programatuz. Gai-
nera, tailer hauetan euren proiektuak diseinatu eta garatu on-
doren, irailaren 22an Ermuko Izarra Centren egingo den Eus-
kadiko Hezkuntza Robotika Txapelketaren 2. edizioan parte



hartzeko aukera izango dute,
doan". Berritasunen artean,
joko edota erronka berriak di-
seinatu dira gaztetxoek euren
proiektuetan aplikatzeko. Bes-
talde, iazko edizioan izena
eman zutenek aurtan ere par-
te hartu ahal izango dute.

20 orduko tailerrak izango
dira, euskaraz, eta Doplay en-
presak emango ditu. Eibarren

ekainaren 26tik 29ra egingo da tailer teknologikoa. Parte har-
tzeko 30 euro ordaindu beharko dira eta plaza-kopurua mu-
gatuta dago. Aurretiko izen-ematea zabalik dago gazteroboti-
ka.eus webgunean.

Euskadiko II. Hezkuntza Robotika Txapelketa, Ermuan

Ermuak amaiera bikaina emango dio Gazte Robotika egi-
tasmoari, Euskadiko Hezkuntza Robotika Txapelketaren bi-
garren edizioarekin. Arduradunek diotenez, "robotikaren eta
teknologia berrien inguruko topaketa izan nahi du txapelke-
tak, doakoa da eta Euskadi osoko gazteei zuzenduta dago.
Eskola adineko haur eta gazteak, 8 eta 16 urte bitartekoak
motibatzea du helburu, robotika eta programazio arloan lehen
urratsak eman eta euren gaitasunak landu ditzaten, talde-lana
eta arazoan ebazpena lantzearekin batera".



Funeraria-Ehorztetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

CAPI Bidebarrieta, 5
943 201 547
www.capiestetica.es



Lifting tratamendu BERRIA!



BETILE LUZAPENAK / LIFTING

Powered by **BODY**

GORPUTZ TRATAMENDUAK

PROGRAMA BERRIAK
Tratamendu drainatzaile eta birmodelatzailearen
4 saiorako bonoak

Ipini zaituz sasoi onean ...



... astero bakarrik 20 minutu eginez

M a s a j e a k Pertsonalizatua

Liburuak



eva alberdi
—UDAL LIBURUTEGIA—

Liburua, kulturarako sarbidea

Txoko honetan askotan jardun dut liburuak esku artean erabiltzearen onuraz, baina, oraindik ez zaitut konbentzitu irakurketak ekartzen dituen abantailaz? Ea ba oraingoan bete-beteen asmatzen dudan. Juan San Martin Liburutegiak urtean ze-



har irakurketa sustatzeko bideratzen dituen ekimenen artean, bederatzigarren urtea beteko du "kultura" zozketatzen bere irakurleen artean. Ekimen honen bidez, Udalak nahiz herriko hainbat taldek antolatzen dituzten jarduera kulturaletarako sarrerak zozketatzen ditu liburu bat irakurri eta gero berriz Liburutegira bueltatzen dutenen artean.

Idea erraza da. Irakurleak, maileguan liburu bat hartzen duen bakoitzean, papertxo bat jasotzen du; liburu bueltatzen duenean papertxo hori bere datuekin beteta ekarriko du. Horrela ia astero Coliseo Antzokiko ikuskizunetarako sarreren zozketan parte hartzeko aukera izango du, eta tokatuz gero lagun batekin batera gozatu ahal izango du emanaldiaz.

Urte honetan oparitu ditugun sarrerei esker gure irakurleek ikuskizun hauetarako aukera izan dute, beste batzuen artean: Antzerki jardunaldietako 9 antzezlan; Shirley Davis and the Silverback (Portalean), Opus cuatro, Terra da fraternidade eta Mugak - Khami-Kalakan kontzertuak; eta dantza emanaldietan, Juanita Unzueta egindako omenaldia, Growing Young (Debabarreneko Eskolarteko Antzerki erakusketa) eta Martin Zalakain Artedrama.

Honekin hauxe lortu nahi dugu: **aisialdiaz gozatzeko liburuak aukeratzen duten erabiltzaileak "saritzea"**. Ekimena hemendik aurrera ere bideratzen jarraituko dugu, Eibarko liburutegiko erabiltzaileen artean oso harrera ona izan baitu.



iñaki
zubillaga

Musika

la ba, zigortu nauzu,

badator berriro zure mamua

Baina hori ez da harrizkoa

Deitu zenidan ilargia beteta zegoenean

Eta ni hemen eserita, telefonoa esku

artean

Pare bat argi-urteak ezagutzen dudan

ahotsa entzuten ari naiz

Pikutara bialduko nauana

Zure begiak gogoratzen ditut

Txantxangorriaren arraultzak baino

urdingoak ziren

Nire bertsioak oso txarrak zirela esan

zenidan

Nondik ari zara deika?

Mendebalde Ertainetako kabina batetik?

Duela hamar urte makula-bikoak erosi

nizkizun

Zuk zeozer ekarri zenidan

Biok dakigu oroitzapenek zer ekartzen

duten

Diamanteak eta herdoila

1975ean Joan Baez abeslari estatubatuarrek "Diamonds & rust" kaleratu zuen, bere 15. diskoa, arrakastatsua. Abesti bat nabarmentzen da, izen bera duena, pasatako amodio

baten istorioarena. 1963ko apirilean Bob Dylanek Joan Baez ezagutu zuen. Baina bapateko maitemina 1961ean izan zan, Joanen kontzertua telebistan ikusten zegoela. Eta horrela kontatzen du Dylanek bere *Crónicas* liburuan: "Ahozabalka geratu nintzen telebistari begira. Berak oso irudi izugarria zuen: ile luze beltza, gerrri estua, karma handikoa... Lotuta geratu nintzen telebistaren parean. Eta ahotsa... zerukoa... amesgaizto guztiak izutzen duenetarikoa... Beste planeta batekoa zirudien...".

Azaldu zinenean mito bat zinen gazte

jatorra, fenomeno bat

Benetako arloa nere besoetan galdu

zena

Eta hor geratu zinen denboraldi bat

"itsas zabalean"

"La Madonna" zuria izan zan askatasun

osoz

Bai, neska hurak arriskutik kanpo

mantendu zizun

Baina amodio tximista horrek bi urte iraun zuen. Gero Dylan Sara Lowndsekin ezkondu zen

"Diamonds & Rust"

1965ean, eta Joan Baez David Harrisekin 1968an. Eta, lehenengo momentutik, Bob Dylanekin izandako harremanari buruzko kontaketa zirela pentsatu zuten guztiek... Baezek bere senar-ohiari buruzkoak zirela esan arren.

Orain zutik ikusten zaitut

Hostoak zure inguruan eta elurra

ile artean

Irribarrez ari zara hotel penagarr

honetako leihotik, Washington

Square-n

Gure alientoa hodei zuri bat

bezala irtetzen da

Benetan nerretzat biok bertan

hilgo genukela

Eta orain esaten didazu

nostalgikoa ez izatea

Ba orduan beste hitz bat erabili

Zu, hitzekin hain ona zarenez

Eta ezertarako balio duten gauzak

gordetzen duzunez, orain

ezertasun hori behar dut eta

Orain oso garbi ikusten dut...

bai, asko maite zintudan

Baina diamanteak eta herdoila

bakarrik eskaintzen baldin

baduzu...

Nik ordaindu diot.



Hasieratik kriston arrakasta izan zuen abestiak eta, hain argigarria zenez, segidan beste artistek ere hartu zuten testua euren bertsioa egiteko.

Xelebrea izan zen Judas Priest britainiar taldeak egindako heavy moldaketa. "Sin Alter Sin" 1977ko diskoan estudioko grabaketa eta Japonian bizi-bizian egindako bertsioa "Unleashed in the East" diskoan kaleratu zuten.

Thundeston, Taylos Mitche, Great White eta Blackmore's Night-ek egin zituzten bertsioek ere arrakasta izan zuten. Azpimarratzekoa azken hori, Candice Night-en ahotsagatik eta, nola ez, Ritchie Blackmoren gitarra liluragarriarengatik. Gozatu!!

Klub Deportiboko Kultura batzordien eskutik egingo dan Eibarko 53. Euskal Jaixak astebururako plan biribila eskinduko desku atzera be. Aurtengo egitarauko ekitaldi batzuk honezkero egin dira, baiña gehixenak gaur arratsaldian hasi eta domeka illuntzera bittartian izango dira: gaur Kalian Jolasian, elektrotzaranga eta Mugu Panderoa taldiaren emanaldixa; bixar Artisau eta Basarritarren Azokiak beteko dau goiza eta arratsaldeko trikipoteuari goizaldera arte iraungo daben kantu-afarixak jarraituko detsa; eta domekan Ezpalak dantza jaialdixa eskinduko dabe Untzagan, oinguan giza-dorrieri eskindutako ikuskizunarekin. Herri bazkarixa be egingo da eta arratsaldian atzera be dantzak izango dira nagusi, Patxi eta Konpainiak gidatuko daben erromerixa eta larrain-dantza saiuk tartian.



Euskal Jaixa bizitzeko moduko asteburua

Aurreko asteburuan, zapatuan Coliseo antzokixan eskindu eben "Martin Zalakain" ikuskizunak zabaldu eban aurtengo programia. Dantza, antzerkixa, musikia, kantuak eta literatura batzen dittuan ikuskizunak Udalaren eskutik egin dau bat Euskal Jaixarekin. Deporreko Kultura Batzordeko Mariano Lukek azaldutakua araber, "Udalak Euskal Jaixaren barruan eskintzeko proposamena egin zeskun eta, ondo begittandu jakunez, hala egi-tia erabaki genduan. Eibarren baiño lehenago taularatu daben toki guztietan arrakasta haundixa lortu daben ikuskizuna da eta, hortaz, gu pozik gagoz egitarauaren barruan sartzeko aukeria euki dogulako".

Espero zan moduan, Eibarren be oso harrera ona euki eban Pio Barojaren pertsonajian oiñarrituta dagan espektaku-

luak. Aurreikuspen guztiak bete eta ikuskizun bikaiña eskindu eban Euskal Herri-xan erreferentzia nagusiñenatarikua dan Argia dantza taldiak. Beste toki batzuetan ez bezala, Eibarren saio bi egin zittuen, bata bestiaren atzetik, eta emozioñuak hasieratik amaierara arte iraun eban arren, ikuskizunaren amaieran Juan Antonio Urbeltzen agerraldixak jendia erabat hunkitu eta Coliseoko publikua zutinik ipintzia lortu eban.

Martin Zalakain sortzeko, Juan Antonio Urbeltz koreografuak Harkaitz Cano idazliarekin eta Ander Lipus taula zuzendari-xarekin jardun dau biharrian, euskal dantza tradizionalaren lengoia eta itxura berritzeko asmuarekin, dantza eta emozioñua alkartzen dittuan narraziño modelo barri bat sortuta. Euskal Herri osoko dantzari

eta musikuak dihardue alkarrekin eta, dantzari-xen artian, Eibarko Kezka dantza taldeko 20 dantzari inguru dagoz, tartian Martin Zalakain abenturazaliaren rola betetzen dabe Josu Garate eibartarra. Atzo, barriz, kalidade haundiko beste emanaldi bat egin zan, Arrate Kultur Elkartearen eskutik: Miren Narbaiza eibartarrak MICE proiektua aurkeztu eban San Andres elizako klaustruan eskindutako kantaldixan.

Kalian Jolasian eta elektrotzaranga

Euskal Jaixaren barruan, 17:00etatik aurrera, 5 eta 8 urte bittarteko umiak eta gurasuak Eibarko Bizikleta Plazan betiko jolasekin ondo baiño hobeto pasatzeko aukeria izango dabe. Antolatzaillien berbetan, "ekitaldixa 17:00etan hasiko da eta, 18:30xak arte, Astixako begiraliak plazan



Maixiganga (Tarragona)



Berantevilla



Paloteadoak (Cabanillas)



Tauste (Zaragoza)

egongo dira, urteroko martxan umiekin jolasteko prest. Aurten, baiña, badago barrittasunik. Izan be, Udaleko Euskara eta Gazteria saillaren eskutik barixaku arratsaldetan auzueta musika eta dantza sauiak egitten hasi dira eta gaurkuak Euskal Jaixarekin bat egingo dau. Hortaz, jolasak amaittu eta jarraixan Zunbalain aillegauko da, dantzarako gogua daken guztiendako musikia eskintzeko prest”.

Bixen bittartian, herriko kaliak eta jendia jairako girotzen juateko, 20:00etatik 22:00etara Orkresta elektrotxarangakuak kalejiran ibilliko dira. Antolatzailliak esandakuaren arabera, “ahalegin berezixa egin dogu txarangako kidien artian neskak dittuan talderen bat ekartzeko, guretako inportantia dalako, baiña ez da erreza izan holako bat topatzia. Edozelan be azkenian lortu dogu nahi gendua eta Orkrestrak girotuko dittu herriko kaliak gaur arratsaldian”. Eta gabian be musikiak segiduko dau, baiña karpa barruan: Mugi Panderoa taldekuak jardungo dabe, 23:00etatik 02:00xetara.

Artisau eta basarritarren azokia zapatuan

Zapatu goizian, 10:00etatik 14:00xetara, Toribio Etxebarria kalia Eibarko eta kan-



Ortzadar (Iruñea)



Duguna (Iruñea)

poko artisau eta basarritarren azokia egongo da zabalik. Zortzi basarritako produktuak eruango dittue: Mandiola Gaiñekua, Loixola, Mendigoitxi, Sumendixa Behekua, Zelakua eta Gisasola basarrixetatik barazkixak; Sosolatik ogixa eta ardi gaztai ekologikuak; eta Egotzati ahuntz gaztaia.

Artisauen artian 18 eibartar egongo dira: Eskulan (Tiffany), Nieves Maidagan (birziklapena), Ana Orozko (ehun-gaixak eta osagarrixak), Ahiztak (ehun-gaixak), Maria Baskaran (pitxiak), Usua Anitua (pitxiak), Jesus Belaustegi (zeramika), Aitor Basterrika (tinte naturalak), Elexamendi (narrua), Hartasu (oihalezko poltsoak), Igor Unanue (txalapartak), Artara (eskuz margotutako poltsoak), Isabel Orozko (pitxiak), Dabiba (mâché papela), Sonia Jaramillo (ehun-gaixak), Pott

(zeramika), Maison du frexe (artisau pateak) eta Maider Lacarra (kosmetika naturala). Horrez gain, kanpotik etorritako beste artisau batzuk be egongo dira: Anitha Mol (pitxiak), Dir-dir (pitxiak), Alex&Quim (ehun-gaixak), Eguzkilore (pitxiak), Norarte (pitxiak), Kromosoma (jostailuak), Borbor (artisau garagardua), David Fernandez (narrua), Baby Mundua (ehun-gaixak), Itxasloo (euskal ehun-gaixak), Luhei (ehun-gaixak) eta Zapatari (oiñetakuak). Hórrekin batera, Garrantek goxokigintza taillarra egingo dau, parte hartu nahi daben guztielkin.

Saharako umieri laguntzeko aukeria

Aurtengo azokak beste barrittasun bat izango da: “Oporrak Bakean” programarekin udan etorriko diran Saharako umieri laguntzeko, Eibar-Sahara Elkarteak ipiñiko daben postua. Bestiak beste henna taillarra egingo dabe eta pultserak salduko dittue, Larrabetzu, Arrasate eta Villabonako aterpetxera etorriko diran 55 haurrendako dirua batzeko asmuarekin. Horrekin batera arropak jasoko dittue (6-12 urte), janarixa (arroza, lekaleak, galletak, kakaoa, atuna...) eta garbittasunerako produktuak (txanpua, gela, hortzetarako eskuillak eta pasta...).



Eibarko basarritarrak euren produktu freskuenekin izango dira bixar Toribio Etxebarria kalia bixar eguerdira arte. **Fernando Retolaza**



Fernando Retolaza

Programan daguezen beste ekitaldi askorekin bezala, azokia antolatzeko orduan Eibart alkartiarekin, Eibarko basarritarrekin eta Debemen alkartiarekin alkarlanian jardun dabe. Bestalde, azokaren inguruan herri-kirolak eta bertsolarixak be egongo dira: *“Betiko moduan, herri kirolarixak saia egingo dabe eta eskolen arteko lehiaketia be jokatu da, bertsolari gaztiak animata”*. Jon Loiola, Tubi, Joseba Ostolaza eta Udane Ostolazak jardungo dabe lasto-altxatzen, ingudearekin eta harri-jasotzen eta bertsotan, barriz, Manu Goiogana eta Jokin Bergarak jardungo dabe. Eta goiz osuan talopostua egongo da Gure Esku Dago ekimenaren eskutik eta kale animaziñua, Eibarko trikitilari gaztiekin.

Bazkatzeko orduan egingo dan etenaldixa eta gero jaixak arratsaldian jarraituko dau, 19:30xetan karpatik abiatuko dan trikipoteoarekin eta ondoren karpa barruan egingo dan kantu-afarixarekin. Afalostian, trikitilari gaztiak lagunduta taldeka kantuan ibilli eta gero, Jainaga eta Narbaizaren eskutik egingo dan erromerixiak agurtuko dau eguna.

Dantzak nagusi domekan

Eta domekan, eguardixan Urkizutik Untzagaraiño egingo dan Euskal Jaiko kalejirarekin hasiko da eguneko programaziñua. 12:30xetan Untzagan Ezpalak dantza tradizionalaren jaialdixa hasiko da (eurixa egingo balu, Astelena frontoian).

Aurtengo dantzetarako aukeratu daben gaixa giza-dorreak da eta horren inguruko ikuskizuna eskinduko dabe partehartzailiak: Kezka dantza taldea (Eibar), Tarragonako Moixiganga (Tarragona, Kataluña), Tausteko Dancea (Tauste, Zaragoza), Berantevillako herritarrak (Berantevilla, Araba) eta Ortzadar Euskal Folklore Elkarte (Iruñea, Nafarroa).


Antolatzailien berbetan, *“plazetako zorua urruti lagako dabe aurtenguan gonbidatuak, gizabanakuak alkarren gaiñian pillatuta. Ezpalak jaialdixak, 2006. urtian sortu zanetik, behin baiño gehixagotan eskindu dau tarteka-marteka giza-torriak ikusteko aukeria. Memorixa larregi nekatu barik, errez gogoratuko dittugu Mirando do Douroko pauliteiroena, Burgos-eko Justo del Río taldeko dantzarixak osatu ebena edo aurtan barriz bisitan etorriko jakun Tausteko Dancea. Dana dala, aurtengo Ezpalak jaialdixak giza-torriak eurak bakarrik ikusteko aukeria eskinduko desku”*.

Ondoren, bezperako afarixan bezala, alkarre gastronomikuak preparautakua jango dabe karpan, 14:30xetan hasiko dan herri-bazkarixan. Eta arratsaldian, Patxi eta Konpailiak gidatuko daben erromerixa eta gero, larrain-dantzarekin agurtuko dogu aurtengo Euskal Jaixa.





t a n t a n e z





ARGAZKIAK:
Maialen Belaustegi
Silbia Hernandez
Ekhi Belar



tantan

Charles eta Ramis beteranoek Eibar FT-n jarraituko dute

Charles aurrelariak eta Ramis atzelariak beste urtebetez jarraituko dute Eibarren, 2019ko ekainaren 30era arte. Aurrelari brasildarrak zortzi gol sartu ditu amaitutako denboraldian eta Ramis ere ez da atzean geratu golak sartzerako orduan. Une honetan Eibarrek 17 jokalaririk kontratuarekin: Dmitrovic, Yoel eta Riesgo atezainak; Ruben Peña, Arbilla, Paulo, Cote eta Ramis atzelariak; Escalante, Diop, Jordan, Pedro Leon eta Orellana erdi-lariak; eta Alejo, Kike Garcia, Enrich eta Charles aurrelariak. Bebe, Galvez, Nano, Calavera

eta Rivera lagatakoekin zer egin erabaki beharko dute. Eta Capa, Dani Garcia, Inui, Fran Rico, Lomban eta Junca jokalariek taldea lagako dute.

Jubenil mailako bigarren taldea igoera bila Unben

45 minutuko triangularrean erabakiko da Euskal Ligara igoeko duen taldea zein izango den. Eibarrek batera, Leioa B eta Lakua, Bizkaiko eta Arabako bigarren sailkatuak, izango dira lehian. Gorriurdinak lehenengoak izan ziren euren multzoan eta Gipuzkoako beste multzoaren liderraren aurka jo-



Charlesekin beste sasoi baterako berritu du.

katu zuten partidu bakarrera Astigarragan. Añorgarekin bina berdindu ondoren, luzapenean ez zen golik izan eta penaltietan erabaki behar izan zuten zeinek igo: gaua ere egin zen jaurtitako 34. penaltiak añorgatarrak igotzea erabaki zuteneko. Orain bigarren aukera dute armaginekin.

Eibar Urko Gorengo mailako txapelketa

Erregional Ohorezko Mailara igotzeaz gain, Eibarko taldeak Preferente edo Gorengo Mailako txapela jantzi du Beasainen maila bereko beste multzoko irabazleari, Aitor Lopez Rekarteren Donostiako Deustori, 4-0 irabazi eta gero.




Amañako eskuz binakako finalak jokatu dira bihar goizean

Maiatzeko bi asteburutan kanporaketak jokatu eta gero, bihar 11:00etatik aurrera finalerdien eta finalen ordua izango da. Klub Deportivo boko pilota eskolako ordezkariak dira "Amaña es la Caña" auzoko elkar-teak antolatutako txapelketan parte hartzen dutenak. Bihar honako zazpi bikoteek jokatu dute: Ekhi Azpilikueta eta Beñat Jauregi, Eneko Ortega eta Patxi Basaras, Ekain Araolaza eta Iker Sarraga, Manex Gisasola eta Ibai Fernandez, Aner Manero eta Xabier Barruetabeña, Ugaitz Segurrola eta Igor Usobiaga eta Ibon Ibarra eta Ainhize Egurrola.

Herriko atletak garaile Real eta Atletico San Sebastianekin

Eibarko Klub Deportiboa Realaren filiala da gizonetako eta Atletico San Sebastianekin



Imanol Egidazu eta Miren Urizar

na emakumezkoetan eta, asteburuan jokatuak taldeen arteko Liga jardunaldian, Julen Teran, Andoni Egurrola eta Markel Gutierrez taldekide izan zuten Real nagusi izan zen Zaragozan, Donostian jokatuak jardunaldian Jone de Castroekin parte hartu zuen Atco. San Sebastian bigarren izan zen bitartean.

Eskola mailan, bestalde, froga konbinatuak Gipuzkoako txapelketa jokatu zen. Miren Urizar garaile izan zuen proban, Imanol Egidazu bigarren izan zen, Nora Zabala laugarren, Kepa Marquez zortzigarren eta Ugaitz Fernandez eta Natasha Bengoa bederatzigarren, beste batzuen artean.



14 urtetik azpiko errugbilariek Goyo Zabalo agurtu zuten

Aurreko zapatuan bazkari batekin eskertu zuten azken bi denboralditan Goyo Zabaloek 14 urtetik azpikoen taldearekin egindako lana. Entrenatzailea badoa, baina neska-mutuekin berak izan duen konektatzeko iaioitasunak bere fruituak eman ditu eta, horrela, taldea multzoburu izan da bigarren denboraldi honetan eta, hori gutxi balitz, 17 jokalaririk izatera iritsi da. Zabaloek "disziplinari txertatzeko lana garatu du eta erdigunean jarri ditu laguntasuna eta guztiaren arteko harreman ona, talde izpiritua eskuratzeraino".

Ipuruako gimnastek emaitza paregabeak eskuratu zituzten etxean jokaturako amateur mailako Gipuzkoako txapelketan

Zapatuan jokaturako txapelketa horretan, Nahia Gonzalezek txapela jantzi zuen kade A mailan (urrezkoa aroarekin) eta Naroa Perezek kade B-n, eta azken honetan Maria Cruz bigarren izan zen. Horiez gain, Sara Etxaburu bigarren izan zen senior+ mailako sailkapen orokorrean, pilotarekin urrea lortu ondoren, eta postu berean geratu zen kade B mailako taldea.

Ipuruak lan bikaina egin zuen eskola txapelketan ere: horrela, June Araujo Gipuzkoako txapeldun berria da infantil B mailan, taldeka hirugarren sail-

katzeaz gain. Eta alebin mailako taldea bigarren izan zen Eskola Jokoetan, sailkapen orokorrean Haizeder Arguiz eta Elene Ramirezek 2. eta 3. postuak eskuratzeaz aparte. Azkenik, aurreko domekan jokaturako taldekako Euskadiko txapelketan Ipuruako hainbat gimnastek Espainiako txapelketarako txartela eskuratu zuten: Alaitz Aranbarri eta Nahia Arguiz nabarmendu ziren, seniorretan bigarren sailkatuta, eta Zaragozan izango dira. Eta Guadalajarako tokia lortu dute ere junior mailako taldeak eta Lur Aranburuk.



Infantil B mailako taldea.

Bihar Arrasaten jokaturako diren Eskola Jokoetan eta etzi Durangon jokoan izango den amateur txapelketan izango di-

tuzte hurrengo erronkak eibartarrek, ekainaren 2an Untzagan egingo den Gimnasiaren Egunari ekin aurretik.

Azkoitian amaituko da bihar Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketa

Floreagako bolatokiak hartuko du Gipuzkoako 49. hiru-txirlo txapelketaren 9. eta azken jaurtialdia. 17:00etan hasiko den tiraldiaren ondoren, ohikoa denez, parrekoak jokatu dira, eman daitezkeen berdinketak apurtu eta postuak erabakitzeko. Sailkapen orokorrean Unai Loiola elgoibartarra da lider, atzetik dituen Gorka Etxanizek eta Xabier Loiolak baino txirlo bat gehiagorekin. Aurreko zapatuan Azpeitiko Garmendipe bolatokian jokaturako jaurtialdiak 48 bolarien

partehartzea izan zuen, eta Iñaki Burrenza (San Andres), Jesus Mendibek (Lastur) eta Angel Ibarluzeak (San Miguel) plenoa egin zuten, 9 txirlorekin. Bat gutxiago bota zuen Asola Berriko Bittor Astigarragak.



**Kalamua
Korrikalari
taldekoek
gozatu
ederra
hartu
zuten
Urko
inguruetan**

Udabertrail irteeran eguraldia lagun izan zuten 20 parte-hartzaileek, jende gutxi ezagutzen dituzten bidezidorrak erabilita, Urkoko kobara bisita egin eta hango plater nagusiarekin gozatzeko. "Txundituta" geratu ziren euretako asko, tokia ez zutelako ezagutzen, eta animatuago oraindik ekin zioten Urko gainerainoko ibilbideari. Hurrengo irteera Udazkentaila izango da, urrian, eta jendea "animatu eta prestaketa lanean hasteko" gonbitea egiten dute Deporreko Mendi Taldeko Trail atalekoek.



Eibar Energiako Mikel Mujika bigarren izan zen Beasainen

125 parte-hartzaile izan zituen LXVIII. Loinaz proban Eibar Energia Hiria Debabarrenako txirriindulariak podiora igo zuen, helmugan bigarren izan ondoren. Legazpiarrak denboraldi bikaina dihardu egiten eta, Santikutzeko lasterketan eta Bidasoako Itzulian egindako bidetik, indartsu azaldu zen Beasainen ere. Caja Ruraleko Joel Nicolauk irabazi zuen 124 kilometroko proba eta 12 segundora helmugaratu zen hirukotearen esprinta Mujikarentzat izan zen, Roger Adria (Lizarte) eta Max Williamson-en (Eiser) aurretik. Taldeka Eibar Energia seigarren izan zen.

150 txirrindularik hartu zuten parte kadeteen mailako Eibarko Txirrindulari Elkartearen Sarian

Aurreko domekan jokatuak Ikolan-Lanaldi Sari Handiaren bigarren edizioan 22 taldetan banatutako 150 txirrindularik hartu zuten parte, tartean 14 emakumezkoak. Kadete mailako lasterketa horretan Bazpi taldeko Asier Pozo nagusitu zen gizonetzkoetan eta Gipuzkoa-Ogiberri taldeko Garazi Estevez emakumezkoetan. Pozok esprintean irabazi zion Iker Uriari

(Atracciones Sanz - Aitzaki) Urkizuko helmugan, 63 kilometroak egiteko 01:33:29 denbora markatuz. Ciclos Iturriagako Beñat Fernandez izan zen, bestalde, Debabarreneko txirrindulari onena. Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatutako egutegian proba bakarra geratzen da denboraldia amaitzeko: ekainaren 17an jokatu den San Juan Sariaren 83. edizioa.



Asier Pozo eta Garazi Estevez irabazleak, saritutako beste guztiakin.

Haritzak kantxa eta zaletuak izango ditu alde igoera lortzen saiatzeko

Zaila zen lehenengoan lortzea, eibartarrek Gipuzkoako liga txapeldunei irabazi behar zieten Legazpian eta, horrez gain, Ugeragako liderrek kale egin behar zutelako. Hala ere, beti bezain zorrotz jokatu zuten Haritzakoek, Anabitarteren ba-

jari aurre eginez. Gorka, Danel eta Egoitz fin jardun zuten aurkarien ate aurrean eta partidua 27nako berdinketarekin amaitu zen. Azken igoera fase honetan partidurik galdu gabe amaitu dute eibartarrek, baina hori ez da nahikoa izan maila igotzeko. Asteburu honetan bigarren aukera izango dute, ligako bigarrenak izanda kantxa faktorea alde dutela: Ipuruak hartuko du asteburu garrantzitsua eta, nola ez, Haritzak zaletuen berotasuna izango du alde asmoa betetzeko. Egia, Muskiz eta Escolapios izango dituzte aurkari Andoni Perezen mutilek Euskal

Ligara igotzeko borrokan: hasteko, eibartarrek Egia egingo diote aurre.

Oinarrizko taldeei dagokienez, porrot bakarra izan zuten azken asteburuan, eta hori ere gol bakarrarengatik: jubenil mailako Aviako neskena Irunen. Mutilen jubenil (Tekniker), kadete (Tekniker), infantil (Arregi) eta alebin (El Tío Palancas) mailako taldeek irabazi egin zuten, nesken kadete taldeak Elgoibarren egin zuen moduan.

Otarren irabazlearen zain

Bestalde, oraindik ez da agertu aurreko asteko asteburuan zozketatutako otarren irabazlea. 9.451 izan zen zenbaki saria eta, ez bada inor azaltzen, berriro zozketatuko da.



Lehen ere ospatu izan ditu Haritzak bere garaipenak.

aire garbiaren bila

Bizkaiko Biraren 16. etapa egingo dute ekainaren 2an

Gorbeiaiko parke naturala zeharkatuko dute 25 kilometroko Biraren etaparik luzeenean


Orozko herrian hasi eta Ubidean amaituko den etapak Gorbeiaiko mendikate osoa zeharkatuko du. Ibiltarientzako txango ezin aproposagoa da, bide osoa Gorbeiaiko Parke Naturalaren barrenekiko joateaz aparte, Bizkaiko Biraren etaparik luzeena delako, 25 kilometrokoa. Ederra bezain luzea izango den etapari igo beharreko desnibela 1.500 metrokoa izango da, hala ere, zailtasun gabeko zeharkaldia da. Behin Oderriaga (1.244 m) menditik pasatuta, bi aukera izango dira: zuzenean Ubidea aldera joatea (Aldamin eta Gorbeia mendiak eskuman lagata), edo Gorbeia tontorretik (1.481 m) pasatzea, txangoa zerbait luzatu eta zailduz. Dena dela, eguraldi onarekin gozatzeko modukoa. Irteera goizeko 7:00etan egingo dute, autobusen geltokitik

Irteeretan parte hartzeko Klub Deportiboko bulegoetan eman daiteke izena martitzenetan eta eguenean (19:30-20:30).



Gorbeian egin beharreko etapa eguraldi onarekin paregabea izan daiteke.

Urbat waterpoloko bi talde nagusiek partidu bikainak egin zituzten



Jokalariai Davide Cerchiren aginduak jasotzen.

Euskal Herriko 1. Mailako txapelketaren azken fasean sartuta daude Urbat-Urketronikeko lehen bi taldeak, kasu bietan 3. edo 4. postuan amaituko duten erabakitze kanporaketan. Barixakuan Orbean jokaturako neurketan "mundial" jardun zuen emakumezkoen taldeak eta, Leioa B-ri 12-10 irabazita, bihar Leioan zirt edo zart egiteko partidurako txartela eskuratu zuten. Gizonzkoen taldeak, bere aldetik, 4-10 irabazi zion Iruñean WP9802 talde nafarrari. Oso serio jardun zuen Eibarko taldeak, gogor atzean eta ze-

haztasunez aurrean. Harrobiari begiratua botata, jubenil mailako taldeak 16-10 garaitu zuen Askartza, kadeteen mailakoak ondo irabazi zuen Burgosen (5-12) eta infantil mailakoek 4-14 galdu zuen Askartzaren aurka.

Bestalde, Mikel Basterrika Mexikora joango da datorren astean Euskadiko selekzioarekin nazioarteko txapelketa jokatzeko, bertako, Costa Ricako eta Argentinako selekzioekin. Eta Espainiako selekzioak Unax Unzeta infantila deitu du Bartzelonan lau egunetan entrenatzeko.

Azken urratsa falta izan zaio Katu-Kaleri maila igotzeko

laz kanasta bakarrarengatik geratu bazen maila igo barik, aurten ere azken partiduak laga du Katu-Kale sariarik gabe. Hala ere, Donostian jokaturako lauko finalean, finalerdietako galga pasatu zuten eibartarrek Kurkubiri 55-52 irabazita. Baina gauza bera eskuratu zuen Antigua Luberri A taldeak, Easori 69-66 gailendu zitzaionean. Ikusten denez, neurketa parekatuak izan ziren biak; eta gauza bera gertatu zen finalean, talde biak jakitun baziren bakarrik batendako saria izango zela. Azkenean donostiarrek 70-63 irabazi zuten eta eibartarrek, itsasertzearaino helduta ere, hurrengo denboraldirako laga beharko dute probintziako 2. Mailara igotzeko aukera.



Ane Ziaran zortzigarren izan zen Hondarribiako Triatloi Sprintean

Aurreko zapatuan jokaturako Hondarribiako probaren X. edizioan Delteteo Triatloi Taldeak zazpi ordezkari izan zituen eta, eurez gain, Ane Ziaran ere bertan izan zen, Saltoki taldearekin. Eibartarrak emakumezkoen 8. postuan amaitu zuen, 1:28:43 denborarekin. Delteteoko zazpikoteak, bestalde, honako denborak lortu zituen ige-garian 750 metro, bizikletan 20 kilometro eta antxitxiketan beste 5 kilometro egin ondoren: Pello Berrizbeitia 77. izan zen (1:17:20), Gonzalo Saez 89. (1:18:18), Eduardo Oyarzun 108. (1:19:49), Joseba Ortega 119. (1:20:22), Roberto Gartzia 145. (1:22:20), Ibai Lazkano 227. (1:28:21) eta Alberto Agirre 304. (1:38:05).

Lau eibartar Zegama-Aizkorri eta beste hiru Kilometro Bertikalean



Gaur hasi eta domekara arte jokatu dira Zegama-Aizkorri entzutetsuaren inguruko gaur egungo hiru probak. Gaur arratsaldeko 16:00etan Kilometro Bertikalaren IV. edizioa izango da jokoan, Euskadiko Koparako baliagarria den proba. 200 kirolarik eman dute izena parte hartzeko, tartean Eibarko hiruk: Mikel Iriondo, Jose Lizundia eta Lorena Guinaldok. Domeka goizean, bestalde, Zegama-Aizkorri mendi-maratoia izango da jokoan bere XVII. edizioan. Proba horretan 558 atletek eman dute izena, lau eibartar tartean: Ander Barrenetxea, Ibai Lazkano, Adolfo Malaga eta Rafa Prieto. 09:00etan hasiko da 5.472 metroko desnibela izango duen proba gogorra da eta lehenek helmugaratzen lau ordu inguru beharko dituzte; hala ere, 17:00ak arte ez da itxiko helmugaratzea. Aipaturako bi probetatik aparte, jokoan izango da VII. Junior Traila ere. Mendi-maratoiaren irudiak ETB-k eskainiko ditu zuzenean.

Urkiko taldeek zorterik gabe Kopako azken jardunaldiko partiduetan

Erregional mailako taldeak finalerdietako neurketa jokatu zuen Mintxetan Elgoibarren aurka eta, partidua oso berdindua izan bazen ere, azkenean amore eman behar izan zuen (2-1) finalerako txartelik eskuratu gabe. Urkikoen gola Jon Garciak sartu zuen. Infantil mailako taldeak, bestalde, Burumendiren aurka jokatu zuen Mutrikun, Kopako final-laurdenetako norgehiagokan, eta 2-0 galdu ondoren torneotik kanpo geratu da.





VIVIANE STRAUB: Eguzki izpi bat, eta jada auto-ilarak!

Zapatuan, Tantan ez Tantan ekimenaren ostean, pertsonai bereziak ezagutu genituen Untzagan: Ahobizi, Belarriprest eta Bihotzgoxo. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean egingo den Euskaraldiaren harira sortutako figurak dira, hamaika egun horietan euskaraz bizitzeko sortu diren rola. Eibarren Akebai plataformak hilabeteak daramatza Euskaraldiari begira lanean eta pertsonaia hauen esanahia argitu digu Mariano Luke Akebai plataformako kideak.



MARIANO LUKE (Eibarren Akebai):

“Euskerarekiko konpromiso zintzoa hartu beharko da Euskaraldian”

- Euskaraldia egingo da azaroaren 23tik abenduaren 3ra, baina zertan datza zehazki?

Hamaika egun horietan euskerari dago-kionez norberak hartzen duen konpromezuarekin jardutean datza egitasmoak. Horretarako hainbat rol sortu dira, Ahobizi eta Belarriprest, baina Eibarren hirugarren bat asmatu dugu, Bihotzgoxo. Helburua ez da ahalik eta jende gehien apuntatzea. Ariketa praktikoa izango da, eta norberak euskerarekiko hartutako konpromezuarekin bere esparruan euskaraz bizi ahal izateko dituen aukerak edo arazoak baieztatu edo ikusi ahal izango ditu.

- Joan den zapatuan aurkeztu zenituzten Euskaraldiko hiru rola: Ahobizi, Belarriprest eta Bihotzgoxo. Nor da nor?

Ahobizi izango litzateke, adibidez, euskalduna dena eta euskaraz bizi dena Eibarrek ematen dituen baldintzak kontuan hartuta. Euskaldun zaharra ez da zertan Ahobizi izan behar euskaldun zaharra delako. Bere bizitza gaztekeraz bizi badu, ez litzateke Ahobizi izango. Garrantzitsua da azpimarratzea hamaika egunetan euskaraz bizitzeko konpromezua hartu eta zintzo bete behar dela. Ahobizi banaiz, hamaika egunetan euskaraz biziko naiz edonon (kalean, lanean, lagunartean, erosketak egiten...), horrek dakarren duen guztiarekin. Belarriprest da beste rol bat. Belarriprestak euskera ulertzen du, baina arrazoi ez-

berdinengatik normalean ez du euskaraz berba egiten. Normalean gaztekeraz egiten duen euskalduna izan daiteke; edo euskaltegian dabilen ikasle bat, euskeraz dakiena baina euskeraz egiten ausartzen ez dena. Orduan, Ahobizi batek badaki Belarriprest ikurra duen batekin lasai asko egin dezakela euskeraz, ulertuko diolako, nahiz eta Belarriprestak agian gaztekeraz erantzun. Azkenik, Eibarren beste figura bat sartu dugu: Bihotzgoxo. Euskera ulertzen ez duen arren euskerarekiko jarrera ona duen jende asko dagoela ikusi dugu Eibarren eta jende multzo hori sartuko litzateke Bihotzgoxo figuraren barruan.

- Nolako hartu-eman sortuko da figura horien artean?

Jende guztiak bereizgarri bat eramango du soinean, aukeratu duen rola zein den identifikatzeko. Euskaldunok, normalean, amore ematen dugu beste hizlariak gaztekeraz bakarrik egiten badu. Ez dugu erronka moduan planteatzen, kontua ez da hizkuntza inposatzea. Ariketa honen bitartez euskaraz bizitzeko dauden aukerak eta arazoak bistaratzea da asmoa.

- Helduengan zentratzen da egitasmo hau, zergatik?

Hau ez da jolas bat eta mugatuta dago adinari dagokionez. Ez da umeentzako ariketa bat. Orain arte umeengana jo izan da euskararen erabilera bultzatzeko, baina oraingoan helduak jarri ditugu jomugan.

Gurasoren bat erdalduna bada edo euskaraz ondo egiten ez badaki, erdera gailendu ohi da etxean. Bada Euskaraldiarekin, bakoitzak hartzen duen konpromezuaren arabera, etxean egiten den hizkuntza aldatu egin ahal da egun horietan eta umeek ikusiko dute. Umeentzako ereduak izan behar gara helduak.

- Norberak aukeratutako rola zein den erakusteko bereizgarria eramango du jendeak. Nola aukeratu ahal izango da?

Herriek Euskaraldian izena emateko epea dago zabalik oraindik eta irailtik aurrera egongo da bakoitzak zein rol hartu nahi duen aukeratzeko beta. Bitartean, Akebain Euskaraldiaren inguruan lan egingo duen batzorde bat osatu dugu eta informazio gehiago eman eta zabaltzen joango gara egitasmo honen inguruan.

- Ekintzarik antolatuko duzue Euskaraldiaren inguruan?

Oraindik goiz da eta lanean gaude, baina bagabiltza gauza batzuk prestatzen. Adibidez, herrian ezagunak diren hamaika laguneko taldea prestatuko dugu eta eurek beste hamaika lagun lotzea da gure asmoetako bat. Gero, hamaika berri horiek beste hamaika lotuko dituzte eta horrela. Bestetik, hamaika egunez bere bizitzaren berri emango digun pertsona topatzeko kastinga egin genuen eta aurrera doa proiektua, baina oraindik ezin dugu gauza gehiago aurreratu.



IRAITZ LIZARRAGA
(aktorea)

- Tenzing sherparen azalean jarriko zara 'Mendi tontorrean' antzezlanean. Nolakoa da bera?

Oso sherpa xelebrea da. Oso umore ona dauka eta oso positiboa da, Himalaiako sherpak izan ohi diren bezala. Aurrrera egiten du beti eta oso langilea da. Nahiko xelebrea diren bidelagun bi tokatu zaizkio espedizio honetan. Batetik, Kosme dago, 'flipatu' bat, natura eta txoriekin asko aluzinatzen duen mendizalea. Hori bai, pertsona ona da. Eta bestetik Txema daukagu, harroputz bat, bilbotarra, baina bere bihotza ere badauka. Pertsona onak dira hirurak, nahiz eta baikoitzak bere kontuak izan.

- Sherpa izanda, beste bien esanetara zaude?

Hasiera batean bai, baina nire nortasuna daukadala ikusiko da gero. Nire baloreak erakutsiko dizkiet eta eurek onartu egingo dituzte.

"Gailurrarekin itsututa bizi gara, baina bidea da garrantzitsua"

Edmund Hillaryrekin batera Everest gailurrera iritsi zen lehen gizakia izan zen Tenzing Norgay. Iraitz Lizarragak ere mendia maite du, baina bere kasuan eszenatoki gainean igoko da gailurrera. Zizurkilgo aktoreak Tenzingen papera egingo du maiatzaren 29an, martitzena, 15:00etan Coliseoan eskainiko den Mendi Tontorrean antzezlanean. Xelebrea da Tenzing, baina are xelebrea goak dira berarekin mendian gora doazen bi bidelagunak.

- Zu, Iraitz, abenturazalea zara?

Askok gustatzen zait mendira joatea, eskalatzea... Beraz, gozokia oparitu zidaten antzerki obra hau egitea proposatu zidatenean. Antzerkia nire lanbidea da eta nire pasio batekin uztartu ahal izan dut.

- Mendian eta bizitzan, oro har, gailurrera iristearekin itsututa gaude?

Bai, horrelakoa da gure gizartea. Gure buruari helburuak jartzen dizkiogu etengabe eta helburu horiek gero eta gorago jarri, hobeto. Ez gara ohartzen bidean galtzen dugun guztiaz eta hori ikusarazi nahi dugu antzezlanean. Bidea garrantzitsua da.

- Mendia irakasgai ona dela diote mendizaleek. Zer ikasi daiteke zuen antzezlanean?

Bizikidetzako baloreak taularatzen ditugu eta bizitza honetan garrantzitsua zer den adierazten saiatzen gara. Kosta ala kosta eta jendea zapalduz helburua

lortu eta helmugara heltzea kritikatzin dugu; eta laguntasuna, talde-lana eta elkartasuna berebizikoak direla azalartzen saiatzen gara. Helburuekin ez itsutzea da kontua. Bestalde, natura zaindu eta naturaz gozatzea aldarrikatzen dugu.

- Askotan esaten da umeei zuzendutako antzezlanak helduentzat ere egokiak direla. Horrela da kasu honetan ere?

Antzezlan hau publiko familiarrari zuzenduta dagoela esango nuke. Berez haurrentzako da, baina hainbat keinu egiten dizkie helduei eta helduentzako txisteak daude. Emanaldietan nabari da momentu batzuetan haurrak antzezlanean murgiltzen direla, eta beste batzuetan haurrek ez dute gertatutakoa ulertzen eta helduak barrezka hasten dira. "Zeinen ondo pasa dugun, baina guk eh!", esan digute helduek noizbait. Zentzu horretan nahiko malgua da antzezlan.

Domekako argazki-rallyak agurtuko du Argazkilaritza Maiatzean

Zapatuan argazki-estudioa Untzagaraino eraman eta gero, domekarako antolatutako argazki rallyarekin agurtuko dute aurtengo Argazkilaritza Maiatzean Klub Deportiboko argazkilariek. Domekan, Euskal Jaiko azken egunean izango den argazki rallyrako izen-ematea 08:30etik 09:30era egin ahal izango da, Klub Deportiboan (kuota 10 eurokoa da, gazteentzat doan). Modalitate bitan parte hartzeko aukera izango da:

zuri-beltzean paperean edo digitalean koloretan. Izena ematen dutenek derrigorrezko ibilbidea bete beharko dute eta gaiak ere emango dizkiete antolatzaileek. Modalitate bakoitzeko hainbat sari banatuko dituzte: bilduma onenaren egileak 80 euro eta ikurra jasoko ditu, bigarren bilduma onenarenak 60 euro, hirugarrenak 50 euro eta, horrez gain, 50 euroko sozial saria eta gazte saria ere emango dira.



Aurreko zapatuan argazki-estudioa antolatutako zuten. Maialen



Umeen bertso jaialdiak Coliseoan

Urtero bezala, maiatzean, Eibarko ikastetxeetako umeei ikasturtean zehar gela barruan landutako bertsolaritzaren emaitza aurkeztu dute Coliseoan. Hiru egunetan jardun dute bertsotan, astelehen eta martitzenean Amaña, Iturburu eta La Salleko Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleek eta atzo, berriz, Arrateko Andra Mari, San Andres, Urkizu eta Aldatzekoek.



Elkartasun kontzertuak gaztetxean

Eibarko gaztetxeak elkartasun kontzertuak antolatu ditu zapatarako: 20:00etatik aurrera Against You (Iruña streetpunk), Brigade Loco, Verräter, Yakolev 42 (Streetpunk Antifa) eta Odio Kronico (Streetpunk Lorko) taldeek joko dute, bata bestearen atzetik. Sarrerak 6 euro balio du eta batzen den dirua taldeko isunak ordaintzeko eta JLN plataformari laguntzeko izango da.



Herriko hiru artisten lanak ikusgai

Maiatzaren 29tik ekainaren 14ra bitartean Cristina Azpiri, Elisabet Eguren eta Esteban Oroz artisten pintura erakusketa egongo da zabalik Untzagako jubilatutako etxean (sarrera aldamenean dagoen aretoan). Ohiko ordutegian zabalduko dituzte ateak, nahi duenak ikustera joateko: astebarrruan 19:15etik 21:15era eta asteburuetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.

Sanjuanetako kartela aukeratu dute

Barixakuan elkartu zen Sanjuanak 2018 Eibarren kartel lehiaketako epaimahaia eta aho-batez aukeratu zuten lan irabazlea: San Sebastian de los Reyeseko Laura Pastor Lorente-ren "Sigue el ritmo" izenburukoa. 11 eta 14 urte bitarteko mailan irabazlea Lore Arregi Cabezón izan da, "Klik sanjuaneri" kartelarekin eta 10 urtera artekoen mailan, berriz, Miren Arroitauregi Ibañez de Aldekoak irabazi du, "Su inguruan dantzan" lanarekin.



Legarreko jaiak prestatzeko bilera

Aurreko asteburuan Legarregain elkartearen egindako bertso-bazkari ederrarekin jaietarako berotzen hasi dira Arrajolape jai batzordekoak. Astelehenean, 20:00etan Legarreko jaiak antolatzen hasteko aurtengo lehen bilera egingo dute, Legarregain elkartearen. Jai batzordekoen berbetan, "auzokide guztiak gonbidatu nahi ditugu jaien antolakuntzan parte hartzera. Denon artean jai hobeak egingo ditugu, seguru. Beraz, legarretar guztiak daude bilera honetara deitua, bakoitzak bere ekarpenak egin eta denok lanean hasteko".



Bertso-bazkaria izan zuten aurreko asteburuan. Maialen Belaustegi

Silvia Zuluagaren liburu aurkezpena

Silvia Zuluaga eibartarrak "¡A dieta! En la vida real" liburu aurkeztuko du astelehenean, 19:00etan Portalean. Sendagile honek orain dela 3 urte blog bat sortu zuen eta bertan elikadura eta pisuari buruzko artikulua idazten ditu. Eta blogeko artikuluetatik datorren astean aurkeztuko duen nobelara salto eman du. Liburuan argaltzeko dieten gaia tratatzen du, baina modu arinean, dibertigarrian, entretenigarrian eta desmitifikatzailean.



Kontzertuak Legarren

Domeka eguerdian, Tarte kafetegian The Bilus Moon bikote akustikoak kontzertua emango du, maitzerako antolatu duten Igande Musikatua egitasmoaren barruan.

"Errezeta gozo osasuntsuak" tailerra

"Adikzio gozoa: azukrearen gazi gozoak" izenburuari jarraituta, "Errezeta gozo osasuntsuak" tailer praktikoa antolatu dute, Natural Biodendak eta Oreka zentruak, Silvana Huegun nutrizionistaren eskutik, azukreari adikzioa izateko arrazoiak nola kudeatu ikasi nahi dutenentzat (elebidun izango da). Maiatzaren 31n izango da tailerra, Portalean, 18:00etatik 21:00etara eta prezioa 30 eurokoa da. Izena emateko 610980628 telefonora deitu edo arri.irati@gmail.com helbidera idatzi.





EKHI BELAR

Bakea gurekin

Nire askatasuna arriskuan jartzen dut goizero. Kafea hartzen dudana bitartean Twitterren sartzeko ohitura daukat eta esnaera txarrekoa naizenez munduaren kontra jartzen naiz. Fiskaltza nahiko lanpetuta dabil iritzia emateagatik jendea epaitzen eta espero dut nire horman ez erreparatzea.

Gehienetan esnatu berriko umore txarra okertzen zait eta noizean behin barrea eragiten dizkidaten gauzak aurkitzen ditut txiolandian. "Bundesligako arbitro batek 32. minutuan eman zuen amaitutzat partidua". Antza denez mozkortuta zegoen, ardo gehiegi edanda edo. Zenbat aldiz bota izan dut faltan horrelako epaile bat lporuan.

Ardoarekin jarraituz, edo kristoren odolarekin, "Elizara joateak bizitza luzatzen du" titularrak irakurri nuen beste txio batean. Ez dut ondo ulertzen zer esan nahi duen. Elizara joaten bazara, gehiago bizi zara? Edo elizara joanez gero oso luzea egiten zaizu bizitza?

Ni ez naiz elizazalea, atea naiz, baina erlijioarekin harreman estua bizi dut azken urteotan. Hemen, nire inguruan behintzat, erlijioaren presentzia ia hutsala bada ere, atzerrian berebiziko kontua dela ikusi dut. Sentimendu erlijiosoa oso barrenean darama nire familia politikoak (zeinen izen zatarrak) eta guztiz aurkako iritzia eduki arren, errespetuz onartzen ditugu bata bestearen pentsaerak.

Arlo pribatuan salbu gaude (momentuz), baina nik esaten ditudan gauzen antzekoak publikoan esateagatik epaitu nahi dute Willy Toledo aktorea. Sentimendu erlijiosoa arakako delituagatik birritan deitu dute epaiketara, baina ez da aurkeztu. Jaungoikoa ere ez.

Markos Untzetak "Eguzki gorri bat" disko berria atera du

Blues, rock eta country generoak lantzen dituen Eibarko abeslariak bere bosgarren diskoa dakar besapean, martitzenean Donostiako Alde Zaharreko liburutegian aurkeztu zuena. Hiruzpatalau urteaz behin disko bat argitaratzeko ohitura gordez, Gaztelupeko Hotsak-en eskutik dator lan berri hau, oraingo honetan talde izaera indartuz, Esku Hutsik taldearen laguntzaz grabatu baitu diskoa. Markos Untzetarekin (ahotsa, gitara elektrikoa eta ahosoinua) batera, Iñaki Belaustegi (bateria eta perkusioa), Angel Ituarte (baxua) eta Giovanni Zanon (gitara elektrikoa) dira Tio Pete es-



tudioan grabatutako proiektu honetako partaide. Aurreneko aldiz taula gainera Londresen igo zen Eibarko musikariak Tom Petty, Neil Young edota Lucinda Williamsen oihartzunak jaso ditu "Eguzki gorri baten", beti ere bere nortasunaren galbahetik pasatuta.

Zabalik dago UEUren ikastaroetarako dirulaguntza eskatzeko epea

Udako Euskal Unibertsitateak ikastaroak egiteko Udalak ematen duen diru-laguntza eguaztenaz geroztik eska daiteke. Irailaren 28ra arte izango da eskaerak aurkezteko aukera, Pegoran. Aurreko urteetan bezala, aurten ere ikastaroak egiten dituzten eibartarrei matrikularen %50a itzuliko die Udalak, hainbat baldintza betez gero. Diru-laguntza eskatzeko, besteak beste, Eibarren erroldatuta egon behar da eta ikastaroan gutxienez %85eko asistentzia ziurtatu behar du ikasleak. Informazio gehiagorako Udalaren web orrian begiratu daiteke.

UEUren Udako Ikastaroen 46. edizioa da aurtengoa eta Eibarren ez ezik Iruñean eta Baionan eskainiko diren ikastaroetan aukera oso zabala dago. Izena emateko epea zabalik dago eta, matrikula egiteko zein ikastaro bakoitzari buruzko informazio zehatza begiratzeko, www.ueu.eus helbidean sartu daiteke.



Landa eremuko elikagaien kontsumoari buruzko ikastaroa

EHUko Udako Ikastaroak eta Landaola federazioaren arteko elkarlanari esker, 'Elikadura jasangarri batetarantz, landa eremuko elikagaien kontsumoa eta eskaera' ikastaroa antolatu da Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroen baitan. Jardunaldi horietan, bertako nekazal elikagaien ekoizpena, jatorriari loturikoa eta hauen kontsumoa zer nolakoak di-


ren ezagutu eta hausnarketa partekatua egingo da. Ikastaroa ekainaren 15ean izango da, Azpeitiko Soreasu antzokian, eta izena emateko epea zabaldu dute dagoeneko. Ikastaroak 40 euro balio du, baina hilaren amaierarako izena ematen dutenentzat merkeagoa izango da (34 euro). Matrikula egiteko edo informazio gehiagorako sartu www.uik.eus helbidean.

Amañako danborradarako entseguak hasiko dira



Datorren astean, eguenean hasiko dira Amañako jaientan egingo diren danborradetarako entseguak. Umeen danborradan parte hartuko dutenentzat entseguak 19:00etan hasiko da eta helduen entseguak hori amaitu eta jarraian, 20:00etan. Biak Amañako ikastetxean izango dira.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



ermuan bagara
 3 egunez euskaraz

Maiatzak 25, ostirala

- 9.00etan, **mendi-irteera**: AEK, udal-euskaltegia, berbalagun eta Artarral.
- 14.30-16.00, **eskolen olingiada**: Anatasuna, Ongarai, San Lorenzo, Eskolabari, San Pelayo eta Antsozolatzen.
- 17.00etan, **ipuin kontaketa**: Ni Nerea naiz. Kimaira
- 19.30-20.00, **batukada**: Alboka musika eskola
- 20.00etan, **mintza potroa**: Gazte Asanblada
- 22.00etan, **kontzertua**: Osterabe. Nu ihu gazte feministak (Eskilarapekin)

Maiatzak 26, larunbata

- 11.00-12.00, **duartiloa**: Orotzi
- 11.00-12.00, **eskubalo-partida**: Errotabarri
- 13.00etan, **mintzadronoa**: Berbalagun
- 13.00etan, **gaste mintzadronoa**: Ermua BHIko ikasleak
- 14.00etan, **argaki jendetza**: Eskalari Birusa
- 14.30etan, **herri-bakaria**: Elkarrekin gastronomikoki eta eskilarapeko
- 16.00-19.00, **gymkhana**: Artarral
- 17.00etan, **dantza-bakaria**: Txindurri
- 19.00etan, **ekitaldi nagusia**: Ermuko Euskaltzaleen Sarea, Sutegi eta Antabakietan
- 19.30etan, **Nondia**: Zinema
- 19.30etan, **abesti-emanaldia**: Pizpilla Abesbatza
- 20.00etan, **enomena**: Alboka musika eskolako traktuari eta panderoak
- 22.00etan, **kontzertua**

ERMUAN Bagara gaurtik domekara

Ermua hiru egunez euskaraz jarriko du Ermuan Bagara egitasmoak gaurtik domekara, azaroaren 23tik abenduaren 3ra Euskal Herri osoan egingo den Euskaraldiaren aurrekari moduan. Ekintza ugari antolatuta ditu Ermuko Euskaltzaleen Sareak eta Ahobizi eta Belarriprest figurak praktikan jartzeko balio izango du.



Trinitateetako azoka berezia ELGOIBARREN

Tinitate jaiak ospatuko dira asteburuan Elgoibarren eta azoka berezia jasoko du hamazazpigarrenez. Zapatuan 9:30etik 17:00etara animalien erakusketa egingo da Trenbide kalean, eta 9:30etik 14:00etara Elgoibarko baserrietako produktuak jarriko dira salgai Lekueder parkean. Garaian garaiko produktuak erosi eta herrian hazitako abereak ikusteko aukeraz gain, kalitatezko produktuen dastaketa, Sagardo lehiaketa eta emakumeen herri kirol erakustaldia egingo dira azoka berezian.

hildakoak

- Jose M^a Santos Ormazabal. 90 urte. 2018-V-16.
- Irene Larrinaga Andreñua. 80 urte. 2018-V-17.
- Rosa Amelia Olaizola Egaña. 75 urte. 2018-V-19.
- Itziar Larrinaga Lejardi. 83 urte. 2018-V-22.

jaiotakoak

- Aitor Goenaga Moreira. 2018-V-14.
- Nille Conde Goenaga. 2018-V-15.
- Aitzol Albajara Rodriguez. 2018-V-15.
- Ghita Hanioui. 2018-V-17.

farmaziak

- Barixakua 25
 EGUNEZ **Mandiola** (San Agustin, 3)
- Zapatua 26
 EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Domeka 27
 EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Astelehena 28
 EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Martitzena 29
 EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Eguaztena 30
 EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Eguena 31
 EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 1
 EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)

GAUEZ BETI - 2018AN-
Lafuente (Sostoatarren, 10)

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

4	5	9	8	7	3	1	2	6
1	6	8	5	2	9	7	4	3
2	3	7	4	1	6	5	8	9
8	1	2	7	9	4	6	3	5
5	9	6	2	3	8	4	1	7
7	4	3	6	5	1	8	9	2
9	7	5	1	4	2	3	6	8
6	2	4	3	8	7	9	5	1
3	8	1	9	6	5	2	7	4

		8	4					
			1		2	9		
	9		5		6		3	
8	1		3		7	6		
	5	6			2		3	1
9		7			1		2	
	3	4			6			
					3	1		

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udalitzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekua.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 25

53. EUSKAL JAIA

17:00/20:00. Kalian Jolasian eta Musika Auzoz Auzo, Zunbalainen eskutik. Eibarko Bizikleta Plazan.

19:30/21:30. Orkresta elektrotzarangaren kalejira.

23:00/01:00. Mugi Panderoa. Karpan.

GURE ESKU DAGO

19:00/20:30. Ekainaren 10ean egingo den giza-katerako izen-ematea. Urkizun (dorreetan).

Zapatua 26

53. EUSKAL JAIA

10:00/14:00. Artisau eta baserriarren azoka. Herrikirolak eta bertsolariak. Taloak. Kale animazioa

Eibarko trikitilari gazteekin. Toribio Etxebarria kalean.

19:30/21:30. Trikipoteoa.

21:30. Kantu-afaria.

Kantuak taldeka, Eibarko trikitilari gazteek musikatuta eta, ondoren, erromeria Jainaga eta Narbaizarekin. Untzagako karpan.

1948-AN JAIOTAKOAK

11:00. Untzagan batzea.

11:15. Argazkia.

11:30. Armagintzaren Museora bisita.

12:45. Piskolabisa Arkupe tabernan.

13:15. Txikiteoa.

15:00. Bazkaria. Untzaga Plaza hotolean.

MANIFESTAZIOA

12:00. Eskualde mailakoa, pentsio duinen alde. Untzagatik abiatuta.

IKASTETXEETAKO PATIOAK ZABALTZEA

16:00/20:00. Arrateko Andra Mari, Amaña eta Urkizu patioak zabalduko dituzte.

ELKARTASUN KONTZERTUAK

20:00. Against You (Iruña streetpunk), Brigade Loco, Verräter, Yakovlev 42 (Streetpunk Antifa) eta Odio Kronico. 6 euro. Eibarko gaztetxean.

Domeka 27

ARGAZKI RALLYA

08:30/09:30. Argazkilaritza Maiatzean ekimenaren barruan antolatutarako izen-ematea. Klub Deportiboan.

KONTZERTUA

12:00. Igande musikatuak: The Bilus Moon (bikote akustikoa). Tarte kafetegian (Legarre, 19).

53. EUSKAL JAIA

12:00. Euskal Jaiko Kalejira, Urkizutik abiatuta: dantza ikuskizuneko talde guztiak, gaiteroak, joaldunak, Eibarko Musika Eskolako eta Jainagaren eskolako trikitilariak eta txistulariak.

12:30. Ezpalak dantza jaialdia: giza-dorreak.

Arabako Berantevillako herritarrek; Iruñeko Ortzadar Folklore Elkarte, Zaragozako Tauste herriko Dancea, Tarragonako moixiganga eta Eibarko Kezka dantza taldea.

Untzagan (euria egingo balu, Astelena frontoian).

14:30. Herri bazkaria.

Untzagako karpan.

17:00. Erromeria, Patxi eta Konpainiak gidatuta.

Untzagan.

19:00. Larrain-dantza popularra. Untzagan.

20:00. Larrain-dantza popularra. Depor parean.

Astlehena 28

BIDEO-FORUMA

18:30. "La Malibrán". Pagatxa emakume taldeak antolatuta. Sarrera libre. Portalean.

AURKEZPENA

19:00. Silvia Zuluagaren "¡A dieta! En la vida real" liburuaren aurkezpena. Portalean (1. batzartokian).

BILERA

20:00. Legarreko jaiak antolatzen joateko bilera. Legarregain elkarte.

Martitzena 29

ANTZERKIA

15:00. "Mendi tontorrean" (Txalo Produkzioak). Euskeraz. 5 urtetik aurrera. Doan. Debabarreneko XXXIV. Eskolarteko Antzerki Erakusketaren barruan. Hezkuntza Esparruan.

IKASTEN

16:00/19:00. Punto-tailerra.

17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

Eguaztena 30

IKASTEN

09:15. Ibilaldia: Landa (Gasteiz), trenbide zaharraren bidea. Bazkaria eraman. Autobusaren irteera ordua, Untzagatik.

MANIFESTAZIOA

12:30. LABek deitutako lanuzteen harira. Untzagatik abiatuta.

TERTULIA

17:00. "Ikasi zeure burua eneagramaren bidez ezagutzen", pastekin. Dinamizatzailea: Eskar Larrinaga. Portalean.

FOROA

19:00. Eskola Mapa foroa, Eibarko EH Bilduren udal taldearen eskutik. Arrate Kultur Elkarte.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

HITZALDIA

19:00/21:00. Uretan itotzearen aurkako prebentzio/eskuhartzeari buruz. Doan. DYaren ordezkartizan (Pagaegi, 5).

DANBORRADA

19:00. San Juan jaietan umeen danborradan parte hartuko dutenentzat entsegua.

20:00. Helduen danborradarako entsegua. Bittor Sarasketa kalean udalak duen lokalean (Beistegi eraikinean).

DANTZA

20:00. Biraka Zinema 2018 (ikasturte amaierako emanaldia). 3 euro. Coliseo antzokian.

Eguena 31

ANDREEN IBILBIDEAK

09:45. Emakumeentzat 2 orduko ibilaldia. Udaletxetik abiatuta.

KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantza (beheko maila).

18:00. Dantza (maila altua).

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

TAILERRA

18:00. "Errezeta gozo osasuntsuak", Silvana Huegun nutrizionistaren eskutik. Natural Biodendak antolatuta. Elebidun. Portalean.

DANBORRADA

19:00. Amañako jaietan umeen danborradan parte hartuko dutenen entsegua.

20:00. Helduen danborradarako entsegua. Amañako ikastetxean.

GURE ESKU DAGO

19:00/20:30. Ekainaren 10ean egingo den giza katerako izen-ematea. Klub Deportiboan.

Erakusketak

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN-etik aparte

Maiatzean:

– JESUS BELAUSTEGIREN ZERAMIKAK (Kokojaten - Calbeton, 8-)

Maiatzaren 29tik ekainaren 14ra:

– CRISTINA AZPIRI, ELISABET EGUREN ETA ESTEBAN OROZEN PINTURAK (Untzagako Jubilatuta Etxea)

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, MIKEL Mondragon Urizar, domekan 4 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat etzekuen partez.



Zorionak, SABINA, eguaztenian 6 urte bete zenduaz-eta. Musu bat etzeko danon eta, batez be, Anton eta Marinaren partez.



Zorionak, LAIA Lopes, bixar 9 urte beteko dozuzelako. Gure pinpiliinpaua txikixarentzako, etzekuen partez.



Zorionak, GARAZI, astelehenian 15 urte bete zenduaz-eta. Etxeko guztien eta, batez be, Gaizkaren partez. Segi txintxo!




Zorionak, MARKEL!, atzo 4 urtetxo bete zenduaz-eta! Musu potolo bat etzekuen partez.



Zorionak, AITOR, atzo 5 urte egin zenduazelako. Musu potolo bat etzekuen eta, batez be, Enekoren partez.



Ongi etorri famelixara, AITOR! Laztan goxua Jule, Gari eta Xareren partez.



Zorionak, IZARO, gaur 6 urte betetzen dozuz-eta. Musu bat etzeko danon partez, neska haundi!



Zorionak, NAROA!! Oso ondo pasa zure egunian. Patxito pillla bat danon partez.



Zorionak, JAVIER eta BIXENTA, zuen urrezko ezteietan. Famelixa guztiaren partez, ondo ospatu!




Zorionak, CLAUDIA, printzesa, martitzenian 6 urte egin zenduaz-eta. Musu bat gurasuen, amama Arrate eta aitxitxa Juan Luisen eta, batez be, zure anaixa JON-en partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
26an: 19:45, 22:30
27an: 20:00
28an: 20:30

"Verano de una familia de Tokio"
Zuzendaria: Yoji Yamada



(2 ARETOAN)
26an: 17:00, 19:45, 22:30
27an: 17:00, 20:00
28an: 20:30

"Custodia compartida"
Zuzendaria: Xavier Legrand




(ANTZOKIAN)
26an: 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30
27an: 17:00^(1 aretoa), 20:00
28an: 20:30

"Deadpool 2"
Zuzendaria: David Leitch



(ANTZOKIAN)
26an: 17:00
27an: 17:00

"Sherlock Gnomes"
Musika: John Stevenson



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK** honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisia salgai Sostoatarren kalean. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta ganbara. 85 m². Tel. 630-878394.
- Babes Ofizialeko pisua salgai Barakaldo kalean. 3 logela eta 2 komun. Garajea eta trastero handia. Guztiz jantzita. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 600-752732. Koldo.

1.2. Errentan

- Matrimonioak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 664-823992.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Mendaroko Arrats pub-a salgai edo alokagai, jubilaioarengatik. Tel. 943-755058.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Mutila eskaintzen da peoi moduan, nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 632-644435.
- Mutila eskaintzen da dendan, tabernan edo tailerrean lan egiteko. Tel. 631-462998.
- Neska eskaintzen da dendan edo tabernan lan egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 631-128719.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 631-429214.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 632-585088.
- Neska eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 652-668877.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko (sukaldea, plantxa...). Erreferentziak. Tel. 631-406177.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 634-609827.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldez nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 603-683176.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko (baita gauak pasatzeko ere etxean edo ospitalean) Orduka. Tel. 632-411069.
- Emakumea eskaintzen da gauez ospitalean nagusiak zaintzeko (aste osoan edo egun solteak). Tel. 632-337083.
- Emakume euskalduna eskaintzen da abuztuan nagusiak zaintzeko, Eibarren edo inguruan. Esperientzia. Tel. 666-844365. Anabel.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia nagusien egoitzetan eta etxeetan. Tel. 688-728748. Jamilet.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 677-768682.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordukegi malgua. Tel. 602-490595.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordukegi malgua. Tel. 631-756284.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Esperientzia. Tel. 632-553674.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. 662-012834.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 674-480027.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-573554.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-179116.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 699-509130.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Orduka. Tel. 616-585028.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 612-450090.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-907807.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Edozein ordutan. Tel. 612-518050.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-613245.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 648-039187.
- Neska eskaintzen da plantxa edo garbiketarak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 675-965130.
- Neska eskaintzen da plantxa edo garbiketarak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 605-598999.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Ordukegi malgua. Esperientzia. Tel. 631-761161.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 632-882588.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-999079.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 688-739534. Daisy Joana.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan. Orduka. Tel. 632-524180.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 634-709827.
- Gizona eskaintzen da kamarero jarduteko (esperientzia) eta nagusiak zaintzeko. Tel. 605-469989.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Esperientzia. Tel. 631-706846.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 643-138471.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 642-595265.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 600-099460.
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 689-855193.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Gida-baimenarekin. Tel. 678-213696.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 635-587617.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 603-498605.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarak egiteko. Tel. 666-197831.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita gauez ere) eta garbiketarak egiteko. Tel. 631-891709.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baserrian lan egiteko, igeltsero-laguntzaile jarduteko eta garbiketarak egiteko. Tel. 684-173729.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 629-889465.
- Neska eskaintzen da lan egiteko. Interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-565350.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 688-635166.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 688-261395.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 631-377989.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 643-225084.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 632-952947.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pintore lanetarako. Tel. 631-104714.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 600-840833.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 612-411026.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-482203.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-835745.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 697-809908.
- Mutila eskaintzen da igeltsero jarduteko eta inguruak zaintzeko. Tel. 631-665008.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- LH eta DBH klase partikularrik ematen ditut. Euskaraz, gazteleraz edo ingelesez. Banaka eta taldeka. Tel. 685-282496.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

Hyundai SUV Gama. Zuk aukeratutakoa.



TUCSON 17.900-tik aurrera

SANTA FE 26.715-tik aurrera

KONA 13.990-tik aurrera

Dagoeneko zure mugak gainditu, handia den zerbaitekin bat egin eta intentsitatez bizi zaitezke. Eta, horrez gain, zelan egin nahi duzun aukeratu dezakezu Hyundairen SUV Gamak eskaintzen dizkizun aukeren artean. Puntakoena aukeratzekotan, KONA Berrira aukeratu duzu. Estiloak, konektibitateak eta abangoardiako diseinuak inspiratuko zaitue edonora joanda ere. TUCSON Hyundairekin jokabide, diseinu eta prestazioen artean konbinaketa biribila erakusten duen modeloaren arrakastarekin gozatuko duzu. Eta, azkenik, handiena, SANTA FE Hyundai: sofistikazioa, espazioa eta luxua azken detaileraino. **Zuk aukeratutakoa da.**

OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPIZKOARAKO
WWW.OARSO-CAR.COM

ELGOIBAR
OIARTZUN
Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30

Olaso Polig., 17
BEASAIN
Errepide Nazionala, 1
943 80 40 54

943 74 14 80
IRUN
Juan Thalamos, 43
943 63 97 69



TUCSON Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 119-175. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6 - 7,5. SANTA FE Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 149-174. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,7 - 6,6. KONA Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 117-153. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,2 - 6,7.

PSP gomendagarria Penintsulan eta Baskarrian TUCSON 1.6 GDI 96,4 kW/131CV 4X2 BLUE ESSENCE (17.900€), SANTA FE 2.0 CRDI 150 CV (110,4kW) 4X2 ESSENCE 7 jarleku (26.715€) eta KONA 1.0 TGD 120CV (88,3kW) 4X2 ESSENCE (13.990€) autontzat. BEZ, garrailo, matrikulazio-zerga, sustapeneko deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta mantenimendu-egokaitza barne. Hyundai-ra Aldatu. Plana aplikatu dute erabiliko auto baren truke, 6 hilabeterekin, Hyundai berri bat erosten duen bezeroaren 19ulartasunpean. Eskaintza hau aplikagarria da Craking Solución Flexible produktuarekin finantzatzen duten bezero partikularrentzat, Banco Cetelem S.A.U.-ren bitartez, 13.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin TUCSON-en kasuan, 16.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin SANTA FE-ren kasuan, eta 12.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin KONA-ren kasuan. Finantziario finantzia-erakundeak aztertuta eta onartu behariko du. Eskaintza 2018/06/30era arte da baliozkoa. Irusten diren modeloak: TUCSON Style, SANTA FE Style eta KONA Style. Mantenimendua ibilgailuaren finantziarioari lotua. * Hyundai Motor España S.L.U.-k bere bezeroei eskaintzen dien km mugarik gabeko 5 urteko berme komertziala Hyundai-ren sare ofizialak salduko duen ibilgailuei soilik aplikatuko zaie, zerbitzu-pasaporteen baldintzen arabera. Kontsultatu itzazu eskaintza, mantenimendua eta bermearen baldintzak Hyundai kontzesionarioen sarean edo www.hyundai.es web-orrian.

KONTSUMO ARDURATSUAREN III. AZOKA EIBARREN



Ekainaren 3an
11:00-14:30
Anbulatorioko plazan

MARTXAN
JARRI!!



**TOKIKO
ELIKAGAI
ETA
PRODUKTUEN SAL-
MENTA**

**UMEENTZAKO
RAVIOLI
TAILERRA
12:00-14:00**

**Finantza etikoak
Energia berriztagarriak
Bidezko merkataritza
Ume zein helduentzako
ravioli agroekologikoen
TAILERRA
Txalaparta saioa
Saski zozketa**

Antolakuntza



Elkarlana



Exebemendi



Finantziarioa



by muxotepotolobat

**NAZIOARTEKOTZA
AUKERAK_**
Europa/Mundurako
bekak
Zikloak ingelesez



**METODOLOGIA
BERRITZAILEAK_**
Erronketan oinarritutako
talde lana



**ESPE
ZIALI
ZAZIOAK**

ELEKTRONIKA

METROLOGIA

DUALA_
Ikasketak
eta lana
uztartuz



**GOI
MAILAKO
ZIKLOAK**

automatizazioa
robotika
ARI

telekomunikazioa
informatika
STI

elektronika
MET

mekatronika
MTI

diseinu
mekanikoa
DFM

produkzioa fabrikazio
mekanikoan
PPFM

**ERDI
MAILAKO
ZIKLOAK**

elektrizitatea
IEA

mekanika
MEC

**GERTUKO
HARREMANA
eta ORIENTAZIO
PROFESIONALA**



**LAN AUKERA
ZABALA_**
Enpresa
harreman estua



**LAN
POLTSA**
Langile
teknikoen
beharra



**aurrematrikula
ekainaren
4tik 15era**



ArmeriaEskola^x

www.armeriaeskola.eus



Isasi 36, EIBAR · 943 20 32 44